

**PERTSON TRAFIKOA
SEXU ESPLOTAZIORAKO ETA
LAN ESPLOTAZIOA EUSKAL HERRIAN.
TXOSTENA.**
Migraziorako ingurune seguruak

Egileak.
Silvia Carrizo Fernández
Patricia Viviana Ponce Páscuale

KREDITUAK

Egileak: Patricia Viviana Ponce Páscuale eta Silvia Carrizo Fernández

Koordinazio eta edizioa: Malen Etxea Haurralde Fundazioaren lankidetzarekin.

Edukien berrikuspena: Julieta Meana eta Florencia Vivone

Laguntzaileak: Emma Dorís López Rodríguez - Diego Ruiz

Portadaren diseinua: Laura Roux

Maketazio eta inprimatzea: a3 diseinua – inprimatzea.

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta argitalpen zerbitzuak S.L.

2019ko azaroa.

AURKIBIDEA

Aurkezpena	5
I. BLOKEA	6
1. Sarrera	6
1.2 Justifikazioa eta testuingurua	6
II. BLOKEA Marko teorikoa	9
2.1 Salerosketa, definizio orokorrak.....	9
2.2 Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa.....	9
2.3 Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa.....	10
2.4 Lan-esplotazioa:	12
III. BLOKEA: Arautze-markoa	17
3.1 Nazioartea eta Europa	17
3.1.1 PALERMOKO PROTOKOLOA, Nazio Batuek Palermon (Italia) 2000. urtean sinatutakoa.....	17
3.1.2 PERTSONEN SALEROSKETAREN ETA BESTEEN PROSTITUZIOA ESPLOTATZEAREN AURKA EGITEKO HITZARMENA	17
3.1.3 PERTSONEN SALEROSKETAREN AURKA BORROKATZEKO EUROPAKO KONTSEILUAREN 197. HITZARMENA.....	17
3.1.4 EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2011/36/EB ZUZENTARAU, GIZAKIEN SALEROSKETA PREBENITZEARI, HORREN AURKA BORROKATZEARI ETA BIKTIMAK BABESTEARI BURUZKOA.....	18
3.1.5 ETXEKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BORROKATZEKO ETA PREBENITZEKO EUROPAKO KONTSEILUAREN 210. HITZARMENA, ISTANBULEKO KONBENTZIO1 GISA ERE EZAGUTZEN DENA (2011)	18
3.1.6. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK. 2030 AGENDA	18
3.1.7 EMAKUMEEN AURKAKO BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK EZABATZEKO HITZARMENA (CEDAW) – 1989	19
3.1.8 NAZIO BATUEN EMAKUMEEI BURUZKO IV. MUNDU KONFERENTZIAREN EKINTZA- PLATAFORMA (BEIJING, 1995)	19
3.1.9 LANGILE MIGRATZAILE GUZTIEN ETA HORIEN FAMILIAKOEN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONBENTZIOA (1990)	19
3.2 Espainiako Estatua	19
3.2.1 ESTATUKO SEGURTASUN IDAZKARITZAREN 6/2016 AGINDUA.....	19
3.2.2 4/2000 LEGE ORGANIKOA, ATZERRITARREK ESPAINIAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA ASKATASUNEI BURUZKOA, ETA ATZERRITAR HORIEK GIZARTERATZEARI BURUZKOA. 20	
3.2.3 GIZA SALEROSKETAREN BIKTIMAK BABESTEKO ESPARRU PROTOKOLOA.....	20
3.2.4 EMAKUMEAK ETA NESKATOAK SEXU ESPLOTAZIORAKO SALEROSKETAREN AURKA BORROKATZEKO 2015-2018RAKO PLAN INTEGRALA.....	20
3.2.5 OSASUN-LANGILEEN JARDUNA SEXU-ESPLOTAZIORA BIDERATUTAKO SALEROSKETAREN AURREAN	20
3.3 Euskal Autonomia Erkidegoa	22
3.4. Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa Espainian	22
V. BLOKEA	
EAEko tokiko eragileak salerosketaren aurkako borrokan	23
5.1 Gurutze Gorria	23
5.2 Askabide	24
5.3 Malen Etxea: Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa EAEn.....	25

VI. BLOKEA:

Nazioarteko testuingurua hegoaldeko herrialdeetan.....	27
6.1 Peruko egoera eta testuingurua.....	27
6.2 Argentinako egoera eta testuingurua	28
6.3 Nikaraguako egoera eta testuingurua	29
6.4 Kolonbiako egoera eta testuingurua	31
6.5 Boliviako egoera eta testuingurua	32

VII. BLOKEA: Sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren aurkako prebentzioan migrazio-ingurune seguruetarako gomendioak	33
--	-----------

Bibliografia	35
---------------------------	-----------

SEXU- ETA LAN-ESPLOTAZIORA BIDERATUTAKO PERTSONEN SALEROSKETA. Migrazio-ingurune seguruen bila

Aurkezpena

Lanaren Nazioarteko Erakundearen arabera, sexu-indarkeria eta -esplotazioa dira esplotazio modurik txarrenetako batzuk. Kausa ugari dituzte, eta horien dinamikak testuinguru sozial, klase sozioekonomiko edo giza-talde jakinetatik haratago zabaltzen dira. Ez da fenomeno berria, ez eta leku edo herrialde bati lotutakoa ere. Sexu-esplotazioaren eta horrekin lotutako delituen biktimek gaitzespen handia jasaten dute gizartean, estigmatizatu egiten dira eta kalte biopsikosozialak pairatzen dituzte, askotan konpondu ezinekoak.¹

XXI. mende hau esklabotza modu berrien aurrean dago, eta pertsonen salerosketa horietako bat da; hain zuzen ere, nazioz gaindiko krimenetan hirugarren zabalduena. Hori horrela, beharrezkoa da ezagutaraztea zer indarkeria- eta esplotazio-egoera jasaten duten neska eta emakume askok —gehienak etorkinak, errefuxiatuak edo lekualdatutako emakumeak, horiek baitira gizateriaren aurkako delitu horren foku nagusia—.

Gure kultura-inguruneke herrialdeetan migrazioekin lotuta dago pertsonen salerosketa, eta, hain zuzen, lan-esplotazioaren eremuan egiten da zailago biktimek identifikatzea; ez da hain ohikoa modalitate hori, baina aipagarria da zein sektoretan eragiten duen: nekazaritzan eta etxeko lanetan.

Beharrezkoa da alternatiba globalak eta integralak bilatzea, prebentzio-, arreta-, bilaketa-, biktimek berreskuratzeko- eta, ahal den neurrian, kalteak konpontzeko estrategiek dituzten arriskuei aurre egitean eraginkortasun handiagoa lortzen lagunduko duten neurriak hartuz arriskuak arintzea ahalbidetuko dutenak.

Salerosketa giza eskubideen urraketa gisa ulertzen dugu, eta pertsona guztiek askatasunez ibiltzeko duten giza eskubidea kontuan hartuta, sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketaren nazioz gaindiko konfigurazio mafiosoak eragiten digu delitu horren kausetan sakontzea eta babes-inguruneak sortzeko estrategiak sustatzea jatorriko, tarteko eta helmugako herrialdeetan.

Helburu horiekin aurkezten dugu hurbilketa teorikoez eta esperientzia praktikoez osatutako txosten hau. Esperientzia horiek Haurralde Fundazioak elkarte laguntzaileekin lanean diharduen herrialdeetakoak dira, bai eta Malen Etxeari (EAEn emakume etorkinei harrera egiten dien elkarte) esker jasotakoak ere.

I BLOKEA:

1.1 Sarrera

NBERen arabera, mundu osoan salerosketaren 63.251 biktima detektatu ziren 106 herrialdetan, eta horietatik % 70 emakumeak eta neskek ziren. Espainia prostituzioa gehien eskatzen duten estatuen artean hirugarrena da, Thailandiaren eta Puerto Ricoren atzetik, eta, gainera, salerosketaren igarobide eta helmuga handienetako bat ere bada. Espainian honako datu ofizialak daude:

Terrorismoaren eta Krimen antolatuauren aurkako Inteligentzia Zentroak (CITCO), 2015ean, sexu- eta lan-esplotaziorako salerosketan ziharduten 15 erakunde soilik desegin zituen.² Soilik esan dugu, zeren esplotazio-espazio askoz gehiago daudela uste baita, eta horien analisi estatistikoa etengabeko egoera da ikerketetan eta/edo informaziorako sarbidean. CEIM Emakumei buruzko Ikaskuntza eta Ikerketa Zentroak egindako lanean jasotzen denez (*Rosa Belén Agirregomezkorta. Estudios sobre prevención, persecución y protección y asistencia en Andalucía*) “datu- eta informazio-faltak eta erakunde ofizialek datuak biltzeko dituzten zailtasunek pertsonen salerosketaren gaia lantzea izugarri oztopatzen dute”.

Estatuko Atzerritarren Fiskaltzak, bestalde, jarraipen-eginbideei buruzko datuak ematen ditu. Horren arabera, 2016an, **sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta nesken salerosketa** kasuen 69 jarraipen-eginbide berezi baino ez ziren ireki.

Azkenik, Genero-indarkeriarako Gobernu Ordezkaritzaren datuak daude, salerosketan eta esplotazioan espezializatutako erakundeetatik jasotzen direnak.

CEDAWen itzal-txostenak³ jasotzen duen moduan (txosten hori osatzen Haurralde Fundazioak eta Malen Etxeak parte hartu zuten, besteak beste), beharrezkoa da, emakumearen sexu-esplotazioaren forma guztiak ezabatzeke, Espainiako Estatuak eta autonomia-erkidego guztiek **sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta nesken salerosketaren aurkako erabateko lanketa martxan jartzea, eremu guztietan eragingo duena**. Hau da, lege-erakunde berean lantzea prebentzioa, delituen jarraipena, biktimen babesa eta kalteen konponketa. Izan ere, Espainiako CEDAW itzal-txostenean jasotzen denez, “politika publikoak eta legeriak partzialki eta ikuspegi errepresibo soiletik ezartzen badira, kontuan hartu gabe sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa desagerrarazteko eta ezabatzeke landu behar diren alderdi guztiak, emakume eta neska horiek zaugarritasun eta estigmatizazio handiagoko egoeran jarriko ditugu, eta bizi duten egoeraren erantzuleak beraien direnaren irudipena areagotuko dugu”.

1.2 Justifikazioa eta testuingurua

Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) arabera, pertsonen salerosketaren 21 milioi biktima baino gehiago daude munduan, eta horietatik 5,5 milioi haurrak eta nerabeak dira. Horretaz gain, 10 milioi haur eta nerabek sexu-esplotazioa jasaten dute.

Europako Batzordeak 2015eko apirilean argitaratu zuen Europako gizakien salerosketari buruzko lehen txostena⁴. Txosten horren arabera, 23.632 biktima izan ziren Europan 2008 eta 2010 artean, eta kopuruak nabarmen egin zuen gora 2010 eta 2012 artean. Gainera, 2010ean Europar Batasunean salerosketaren biktima gehien zituzten herrialdeen artean bigarrena Espainia izan zela erakusten du txostenak, Italiaren atzetik.

² GREVIOren itzal-txostena, 2018. 26. or.

³ 6. artikulua: “Estatu alderdiek neurri egoki guztiak hartuko dituzte, baita legegintzakoak ere, emakumeen salerosketaren eta emakumearen prostituzioaren esplotazioaren forma guztiak ezabatzeke.”

⁴ Gizakien salerosketari buruzko EBren datu estatistikoaren txostena (EUROSTAT: Trafficking in Human Beings in Europe 2015)

Europako txosten horretan, sexu-esplotazioa aipatzen da salerosketaren modalitate nagusi gisa, kasuen % 62 baitagokio; aldiz, % 25 lan-esplotazioari dagokio, eta gainerako % 14a beste esplotazio-forma batzuez osatzen da; besteak beste, behartutako ezkontzak eta organoen erauzketa. Biktimei dagokienez, osotasunaren % 80 emakumezkoak dira; baina sexu-esplotazioa soilik hartzen badugu kontuan, emakumezkoen kopurua % 95ekoa da. Aldiz, lan-esplotazioa jasaten duten pertsonen % 71 gizonak dira. Bestalde, pertsonen salerosketaren biktimen % 15 adin txikikoak dira⁵. Egoera horiek ikusgarri egitea da azterketa honen helburu nagusia.

María Gavilánek pertsonen salerosketari eta trafikoari buruz emandako hitzaldian esan bezala (Donostian 2019ko martxoan antolatu ziren *Violencias entrecruzadas - Indarkeria elkar gurutzatuak* nazioarteko jardunaldietan), sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako migratzaileen legez kanpoko trafikoa, zenbaitek "giza miseriaren merkataritza" izendatzen dutena, negozio globala da, eta trafikatzaileentzat eta krimen antolatuarentzat irabazi handiak sortzen ditu, arazo larriak eragiten dizkie gobernuei, eta, batez ere, migratzaileak etengabeko abusuen eta esplotazioaren mende uzten ditu. Delitu mota horretan, trafikatzaileak egitura instituzional ahulez eta migrazioari buruzko erregulazio eskasez baliatzen dira munduko leku askotan. Estatu askotako erakunde publikoen politikak eta koordinazio-tresnak eskasegiak dira migratzaileen trafikoa desagerrarazteko.⁶

Honakoak dira salerosketa betikitzen laguntzen duten faktoreak:

- Pertsonen **salerosketak dakarren jarduera ekonomiko handia**. Probetxu ekonomikoa lortzera bideratuta dago salerosketa, eta, gaur egun, mundu mailan diru gehien egiten duten krimen antolatuko jardueren artean bigarrena da, droga-trafikoaren ondoren.
 - **Krimen antolatuaren** esparruan gertatzen da. Bertan, mafiek eta sare kriminalek —jatorri geografiko eta kulturalen arabera, tamaina eta tipologia desberdinekoak— salerosketaren sekuentzia osoa modu koordinatuan gauzatzen dute: erakarri, lekualdatu, helmugan harrera egin eta, azkenik, esplotatu.
 - Azkenik, kasu askotan **atzeritar izaerarekin eta mugak gainditzearekin lotutako faktoreak** daude. Izan ere, herrialde desberdinetako polizien eta fiskaltzen ikerketek islatzen duten errealitatean, behintzat, askotan biktimak beren herrialdetik irteten dira, eta bidaia luzeago edo laburragoen ondoren, esplotatuko dituzten leku batean amaitzen dute, edo beste herrialde batera eraman bitartean gelditzen dira; nolana ere, irabazi ekonomikoa jasotzen du trafikatzaileak.
- Atzeritarrei buruzko legeria eta Giza Eskubideena bereizi egin behar lirateke; pertsonen salerosketa ez lukete immigrazio irregularrean espezializatutako taldeek ikertu beharko, eta salerosketaren biktimen babesa ez genuke atzeritarrei buruzko legeen esku utzi beharko. Horrela, biktima erdigunean duen hurbilketa baterantz bideratu ahal izango genuke.

Bestalde, sexu-esplotaziora bideratutako emakumeen eta nesken salerosketaren aurkako plan integralaren bidez, Espainiako Gobernuak baieztatzen du gizakien salerosketak neurri kanpo eragiten diela emakumeei eta neskei, eta haiek jasaten dituztela salerosketa-forma larrienak (sexu-esplotaziora bideratutakoak). Horren zergatia da, neurri batean, ondorengo faktoreen eraginez emakumeak eta neskek zaugarriagoak direla:

5 *Estudio sobre prevención, persecución protección y asistencia a víctimas y supervivientes de la trata*- CEIM

6 María Gavilán Rubio doktoarearen hitzaldia: "Trata y tráfico de personas, dimensión de Derechos Humanos, género e interculturalidad. Respuesta de los sistemas judiciales" Donostian, 2019ko martxoaren 4ean.

- Gizartea antolatzeko sistema; izan ere, genero-desparekotasun ereduak betikotzen ditu, eta, oro har, emakumeak eta neskek debaluatzen ditu, bereziki ondorengo egoeretan: gatazka armatuak, biztanleriaren joan-etorriak, gutxiengo etnikoen taldeak, eta abar.
- Pobreziaren feminizazioa.
- berdintasuna falta da heziketan, formakuntzan eta lan munduan.
- Pertsona batzuek beren eta inguruko bizi-baldintzak hobetze aldera duten emigratzeko gogoia esplotatu egiten da.

AEBetako Estatu Departamentuak 2018ko txostenean egin zuen Espainiako testuinguruaren azterketan argi eta garbi ikusten da azken bost urteetan Espainia izan dela Latinoamerikatik (bereziki Venezuela, Paraguai, Brasil, Kolonbia eta Ekuador) eta Afrikatik (Boli Kosta eta Saharaz hegoaldeko Afrika) datozen emakume eta nesken helmuga, jatorri eta igarobide, eta sexu-esplotaziorako salerosten direla pertsona horiek. Espainian prostituzioa ez dago araututa, eta pertsonen salerosketari oso lotuta dago.⁷

Espainian, oraindik ere, badira biktimak Italia eta Espainia hegoaldeko mugetatik sartzen dituzten salerosketa-sare aktiboak; ondoren, estatu horietan nahiz beste batzuetan (Alemania, Austria, Belgika, Frantzia, Finlandia, Irlanda, Italia, Herbehereak, Norvegia, Portugal edo Erresuma Batua) prostituziora bideratzeko.

Metodologia desberdinak erabiltzen dituzte, baina, oro har, biktima aldi batez gatibu edukitzen dute pertsona baten edo askoren menpe, eta indarkeria eta mehatxuak jasaten ditu. Ondoren, prostituzioan aritzera behartzen dute, irabaziak ekar diezazkion gatibu mantentzen duen proxeneta-sistemari. Txostenen arabera, biktima bakoitzaren irabaziak 30.000 eta 60.000 euro artekoak izan daitezke, eta, bestalde, etxebizitza- eta mantenu-gastuak dituzte; horiek biktimek askatasuna ordaindu ahal izan arte esplotatzaileekiko duten "zorrari" gehitzen zaizkio.⁸

Hala, Espainia salerosketa-sareen igarobide ez ezik, helmuga ere bada, eta biktimak eskatzaile asko eta askoren kontsumorako esplotatzen dira. Gure autonomia-erkidegoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzak baditu biktimentzako zenbait baliabide, baina ez dago salerosketa-sareetan erori diren edo edonolako esplotazioa jasan duten pertsonentzako laguntza, babes eta jarraipen programa integralik. Estatu-mailan badaude laguntzeko programak, baina ez dira nahikoa.

7 <https://www.state.gov/wp-content/uploads/2019/01/282798.pdf>

8 *Report concerning the implementation of the Council of Europe Convention on Action against Trafficking in Human Beings by Spain* – GRETA

II. BLOKEA: Marko teorikoa

2.1 Salerosketa, definizio orokorrak

Pertsonen salerosketa isilpeko krimena da, identifikatzen zaila, eta errentagarritasun aldetik narkotrafikoaren eta armen kontrabandoaren parekoa. Herrialde bakar bat ere ez dago hartatik salbu, eta XXI. mendeko errealitate triste eta desafiatzailea da: milaka pertsonak, etorkizun hobea baten bila, mota guztietako esplotazioa jasaten dute, eta salerosketa hori gauzatzeko biktimen zaurgarritasun-egoeraz edo botere-desorekaz baliatzen dira.

Gizakien salerosketa kontzeptualizatzeak eta aztertzeak aukera ematen du salerosketaren aurka orain arte garatu diren politikak eta ikuspegiak ulertzeko.

Gaur egun politika publikoak gidatzen dituen pertsonen salerosketaren definizioa pertsonen salerosketa prebenitu, zigortu eta zehatzeko Nazio Batuen Protokoloan (Palermoko Protokoloa) jasotako definizioan oinarritzen da. Protokolo horren arabera, **“Pertsonen salerosketa” esamoldeak adierazten du pertsonak biltzea, garraiatzea, lekualdatzea, babestea edo hartzea, horretarako baliatzen baldin bada mehatxuaz edo indarraz edo indarkeriaren beste forma batzuek edota bahiketaz, iruzurraz, engainuaz, botere abusuz, ahultasun egoeraz edo ordainketak edo onurak emateaz edo hartzeaz pertsona baten adostasuna eskuratzeko, pertsona horrek beste pertsona baten gaineko agintaritza badu, betiere esplotazio helburuekin. Esplotazio horrek barneratzen ditu, gutxienez ere, inoren prostituzioaren esplotazioa edo beste sexu-esplotazio forma batzuk, derrigorrezko lan edo zerbitzuak, esklabotza edo esklabotzaren antzeko eginerak, morrontza edo organoak ateratzea.**

Pertsonen salerosketak esan nahi du jatorrizko herrialdean, migrazio-ibilbidean edo helmugako herrialdean biktima erakartzea, eta esplotatzea, indarkeria edo mehatxuak erabiliz.

Fenomeno horrek migratzaileei eragiten die gehienbat, eta dagoeneko nazioarteko kode eta araudiek sailkatua dute. Hala ere, kontzeptualizazio handiagoa eta osoa behar da, salerosketa-sareen egituraren konplexutasuna eta delitu horrek berekin dakartzan esplotazio-egoerak ikusgarri egiteko; eta, batez ere, biktimen ongizateari lehentasuna emango dion hurbilketa bat behar da. Izan ere, muturreko premia-egoeran daude, eta hori da sexu- eta lan-esplotazioaren jarraipena ahalbidetzen duen faktore nagusia.

Harrera-herrialdeetan biktimek legezko babesa izatea, gaur egun Europan milaka pertsonak pairatzen dituzten errealitateei buruz genero-ikuspegitik hezteak, eta jatorrizko herrialdeetan gizakien salerosketatik bizirik atera direnek beren istorioak kontatzen dituzten sentsibilizazio-kanpainak egitea dira pertsonen salerosketaren aurkako benetako borroka ahalbidetuko luketen tresnak, guztiontzako aukerak emango dituen eta inor atzean utziko ez duen gizarte bat lortzeko.

2.2 Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa

Coalition against trafficking in women erakundeak honela definitzen du sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa: esplotaziora bideratutako pertsonen merkataritza. Alegia, sexu-esplotazioa helburutzat izanik, beste pertsona bat erakarri, lekualdatu, edo hura hartzen duenaren jarduna da⁹.

Palermoko Protokoloak zehazten duenarekin bat etorritik, *Coalitionek* aipatzen du biktimaren adostasunak ez duela garrantzirik. Adostasuna balego ere, ez da aintzakotzat hartuko

⁹ *La trata de personas con fines de explotación sexual y la explotación de la prostitución ajena - Coalition against trafficking in women.*

baliatzen bada mehatxuaz edo indarrak edo indarkeriaren beste forma batzuek edota bahiketaz, iruzurrak, engainuaz, botere abusuaz, ahultasun egoeraz edo ordainketak edo onurak emateaz edo hartzeaz pertsona baten adostasuna eskuratzeko, pertsona horrek beste pertsona baten gaineko agintaritzak badu, betiere esplotazio helburuekin. 10

Salerosketari lotutako zenbait fenomeno (prostituzioa, esaterako) biktimaren ustezko baimena argudiotzat hartuta justifikatzeak betikotu egiten du salerosketaren aurrean permisibitate-ingurune bat egotea, zeinetan genero-desparekotasuna eta emakumeen eta adingabeen aurkako indarkeria onartzen jarraitzen baiten.

Salerosketa-mota horietan dagoen **sexu-esplotazioa** prostituzioan edo pornografian beste pertsona bat erabiltzeari etekina (ekonomikoa edo edozein motatakoa) ateratzean datza. Generoan oinarritutako diskriminazioa da, emakumeei eta neskei neurritz kanpo eragiten dielako, emakume jaiotzeagatik soilik. Emakume horiek zaurgarriagoak dira arrazoi ugarirengatik: abandonatuak izan direlako, familia barruko indarkeria, sexu-abusua edo intzestua jasan dutelako, Estatuaren zaintzapeko sistemengatik, aukera-faltagatik, eta arrazismoaren, sexismoaren eta klasismoaren ondorioz. Desparekotasun- eta indarkeria-adierazpen bat da, zeren gizonen kontrola, botere-abusua eta zaurgarritasunaren aprobetxamendua barne hartzen baititu. 11

Hori guztia indarkeriazko testuinguru batean gertatzen da, non emakumeak baitiren biktima nagusiak. **Indarkeria** hori **gurutzatuta** dago, subjektu baten esku daudelako pertsonen (berezi adin eta baldintza sozioekonomiko desberdinetako emakumeen) gorputzak eta osotasunak, haien adostasunik gabe, eta behartu egiten dituelako gogoz kontra sexua praktikatzera, horretarako indarkeria fisikoa, psikologikoa eta/edo sexuala erabiliz. Subjektu hori bere botereaz baliatzen da (klaseak, adinak, etniak edo aberastasunak ematen diona) autoritatea inposatzeko. **Sexu-indarkeria** da, biktima objektu sexualtzat hartzen eta tratatzen delako, eta sexu-esplotatzaileari plazera eta onura ematen dizkielako (edozein jardura sexual, pornografiko edo erotiko eta hipersexualizatzea hartzen ditu barne). **Komertziala da**, legez kanpoko transakzio bat dagoelako —ordainketa edo ordaintzeko promesa baten trukean—, eta bertan parte hartzen dute salerosleek eta proxenetek, sexu-esplotatzaileek (erosleek), gorputzak objektuak balira bezala kontsumituz, trukatzuz, jabetzan hartuz, besterenduz eta desjabetuz, eta, kasu gehienetan, biktimen aukera bakarrak dira egoera horretan bizitzen jarraitzea (denbora jakin batez edo betiko) edo behartutako nahiz "borondatezko" prostituzio-zirkulu deitzen zaien horietatik ateratzeko ahaleginean hiltzea, bizi-proiektu alternatiboak eraikitzeko gutxieneko baldintza eta aukerarik gabe. 12

2.3 Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa

Lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa lan-munduan gertatzen den giza eskubideen urraketa larrienetako bat da, eta, gainera, hautematen zailenetakoa; ez bakarrik gertatzen den inguruneengatik, baizik eta gizartean ez dagoelako nahikoa kontzientziazio, informazio edo hura lantzeko tresna zehatzik, eta, bestalde, ezkutuko ekonomiaren esparruan enplegu irregularra eta oinarritzko eskubideak urratzen dituzten delituak bereizten ez dituen nolabaiteko tolerantzia soziala dagoelako.

Alderdi askotan, lan-esplotaziora bideratutako salerosketa sexu-esplotaziora bideratutakoaren antzekoa da. Batetik, bietan biktima gehienak garapen bidean diren

10 Pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloa, Antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duena

11 *La trata de personas con fines de explotación sexual y la explotación de la prostitución ajena* - Coalition against trafficking in women.

12 *Violencias entrecruzadas, el avance de los fundamentalismos políticos y religiosos contra los derechos de las mujeres* – Haurralde Fundazioa

herrialdeetakoak dira eta garatutako herrialdeetara lekualdatzen dira. Bestetik, pertsonak erakarri eta esplotatzeko moduak oso antzekoak izan ohi dira. Desberdintasun nagusia helmugako herrialdera iritsitakoan biktimak jasaten duen esplotazio-mota da. Kasu honetan, esplotazioa bortxazko lanen forman gauzatzen da, batik bat nekazaritza-sektorean, etxeko lanetan eta bestelako zerbitzuetan.

Lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa, beraz, lan-esplotazio edo bortxazko lan mota zehatz bat da; izan ere, lan-esplotazioa jasaten duten pertsona guztiak ez daude pertsonen salerosketa-prozesu batean sartuta, baizik eta egoera horretara iritsi dira beste egoera batzuen ondorioz.

Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa bi eremu nagusitan bana dezakegu:

Derrigorrez edo zortasunez lan egitea: gutxien ezagutzen den salerosketa-modua da, baina erabiliena. Kasu horietan, biktimak lan egitera derrigortuta daude zor bat edo mailegu bat ordaintzeko, haren terminoak edo baldintzak argi zehaztu ez badira ere. Oro har, biktimak ez dira konturatzen legez kanpokoa dela tratulariek zehaztea zorra nola ordaindu behar duten eta zenbatekoa den; kasu askotan, biktimei zor pila bat metatzen zaizkie, isunak ezartzen dizkiete arauak ez betetzeagatik, eta gutxitan ikusten dute ustez irabazten duten dirua. Gainera, ez dakite beren zorraren zenbatekoa ere, tratulariek etengabe handitzen baitute.

Bortxazko lana: biktimak bere borondatearen aurka lan egin behar duenean gertatzen da; bereziki, indarkeria, mehatxua, zigorrak, "isunak", askatasun mugatua eta antzekoak erabiltzen badira hura lanera derrigortzeko. Kontzeptualki, bi esplotazio moten arteko aldea ezar dezakegu, baina praktikan bereizketa hori ez da hain agerikoa. Are gehiago, kasu gehienetan, bi esplotazio motak batera gertatzen dira. Hau da, esplotazioaren menpe dagoen biktimak esplotazio baldintzetan egiten du lan zor bat ordaintzeko, noiz kitatuko duen jakin gabe, eta aldi berean mehatxu, zigor eta isunen pean egiten du lan, biktima menderatzeko eta hitzartutako lana eginarazteko bitartekoak baitira horiek.

Gainera, lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren fenomeno globala ulertzeko, kontzeptu hauek definitu behar ditugu:

- **Esklabotza:** *"pertsonen egoera eta baldintza da, non beste norbaitek jabetza-eskubideari egotzitako ahalmen guztiak edo batzuk norbanako horren gainean egikaritzen baitituen".*
- **Esklabotzaren antzeko eginerak:** *"beste pertsona baten esplotazio ekonomikoa dira, zeinak mendekotasun- edo hertsadura-harreman erreal batean oinarritzen baitiren, eta pertsona horren oinarritzko eskubide zibilen gabetze larri eta zabala barne hartzen duten. Eginera horien barruan sartzen dira zorren ondoriozko derrigorrezko lana, glebako morrontza, zerbitzura bideratutako ezkontza eta haur eta nerabeen esplotazioa".*
- **Mirabetza:** *"lan-baldintza jakin batzuk edo lan egiteko edo zerbitzuak emateko betebeharra da, norbanakoak ezin badu baldintza horietatik libratu edo horiek aldatu".*
- **Glebako morrontza:** *"pertsona baten egoera, legez, ohituraz edo erabaki baten ondorioz behartuta dagoenean beste pertsona baten lurretan bizitzera eta horiek lantzeraz, eta pertsona horri zerbitzu jakin batzuk ematera, ordainsariaren truke nahiz dohainik, bere egoera eraldatzeko askatasunik gabe."*

Menderakuntza lortzeko mekanismoak edo baliabideak ugariak dira:

- **Indarkeria, mehatxuak eta larderiak** honako hauek izan daitezke: tratu txar fisiko eta psikologikoak, indarkeria fisikoa eta ahozkoa, herrialdera legez kanpo sartzeagatik edo agiri faltsuak erabiltzeagatik salaketa-mehatxuak (kanporatzearen beldurra eragiteko), baita honako faktoreekin mehatxatzea ere: elikagaiak edo etxebizitza ukatzea, kalteak edo errepresaliak eragitea biktimari berari, seme-alabei edo beste senide batzuei, gizarte-isolamendua eta -bazterkeria, "naturaz gaindiko" errepresaliak, lan-baldintzak okertzea, etorkizuneko enpleguen aukera murriztea, eskubideak edo pribilegioak kentzea.
- **Zorren ondoriozko morrontza:** zordunak, zorraren berme gisa, zerbitzu pertsonalak edo bere aginpidean dagoen beste baten zerbitzuak emateko konpromisoa hartu badu gertatzen da, baldin eta emandako zerbitzuak, ekitatearen arabera baloratu ondoren, ez badira erabiltzen zorra ordaintzeko, edo zorraren iraupena mugatzen edo aipatu zerbitzuen izaera zehazten ez bada. Kasurik ohikoenetan, biktimaren zorra sortzen da tratulariak hura lekualdatu izanaren gastuak bere gain hartu dituelako. Gero, esplotazio-herrialdean, biktimaren soldata (halakorik balu) behar baino txikiagoa da, eta zor hori kitatzeko erabiltzen da.

Gainera, baliteke soldata horretatik legez kanpo kentzea gehiegizko garraio, elikadura eta etxebizitza gastuak, edo zigor ekonomikoak ezartzea biktimari, soldatak ez ordaintzea edo atzeratzea, eta abar. Azkenean, biktimak hutsaren hurrengo kobratzen du, edo ezer ez, eta, hala, ezinezkoa egingo zaio zorra kitatzea. Zorren ondoriozko morrontza sarritan erabiltzen da behartzeko metodo gisa lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa-prozesuan.

2.4 Lan-esplotazioa:

Lan-esplotaziotzat hartzen dira **enplegatzaileak enplegatuari egiten dizkion abusu guztiak**, hala nola mehatxupean lan egitea edo langilearen erantzukizunarekin, ahaleginarekin eta lan orduekin bat ez datorren soldata bat ordaintzea.

Lan-esplotazioak, soldata txarra eta lan-baldintza eskasak eskaintzeaz harago, langileei eragiten dieten hainbat alderdi sozial, ekonomiko, moral, fisiko eta mental ere badakartza. Menderatze-harremana sortzen da enplegatzailearen eta langilearen artean, langileari eragiten dioten mekanismoak erabili ondoren mehatxuak egitearen ondorioz, eta etorkin ilegalen kasuan, oso litekeena da enplegatzaileak esplotazioa eta abusuak erabiltzea. Horregatik esaten da inplikaturako alderdien artean (enplegatzailea eta langilea) ez dagoela berdintasunik, eta hori posible bada, da aldeetako batek bakarrik jasotzen duelako egindako lanaren onuraren zatirik handiena.

Adituek esklabotza eta lan-esplotazioa parekatzen dituzte, eta desberdintasun bakarra da ez dela, XVIII. mendean gertatzen zen bezala, gizabanako batek beste baten gainean duen botere absolutua. Baina asmo nagusia, bietan, beste pertsona batzuek egindako lanetik etekin ekonomikoa lortzea da, eta haren mugimendu-aukera murrizta da. Zalantzarik gabe, eredu ekonomiko moderno eta globalizatuen ondorioetako bat lan-esplotazioa "naturalizatzea" izan da, lanaren nazioarteko banaketa berriaren babesean, non migrazioek lege-, ekonomia- eta giza eskubideen alderdiak barne hartzen baitituzten, adina eta sexua bereizi gabe.

Lan behartua eta lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa¹³

Lan-esplotazioak ez die eragiten helburuko herrialdera ekarritako atzerritar edo etorkinei soilik. Egoera alderantziz gauzatzen da; lan-esplotazioak jende askori eragin diezaioke, eta, horien artean, asko izan daitezke lanean esplotatzeko eta probetxua ateratzeko helburuarekin atzerritik ekarritako etorkinak.

Horrelako kasuetan, estatuko hiritarrak, egoera erregularrean dauden etorkinak eta egoera irregularrean daudenak berdin esplota ditzake pertsona edo talde batek, lan-beharrean aurkitzen diren pertsonen egoeraz aprobetxatuta. Biktima enplegatzaile baten eskuetan eror daiteke, eta hark, ahozko edo idatzizko kontratu baten bidez, eginarazi diezaioke lan bat, eta lan horren baldintzak, adostu gabekoak izateaz gain, indarrez, engainuz edo mendekotasuna aprobetxatuz ezarriak izan daitezke.

Alde horretatik, esan liteke lan-esplotazioa edo lan behartua kontzeptu generikoa dela, eta salerosketa lan-esplotazio mota bat dela, haien lanetik irabazia ateratzeko atzerritik ekarritako pertsoneri eragiten diena.

LANEren 29. hitzarmenaren arabera, lan behartua da “edozein zigorren mehatxupear norbanakoari eskatutako lan edo zerbitzu oro, norbanakoak halakoa egiteko bere burua borondatez eskaintzen ez duenean”.

Lan behartuari dagokion Protokoloak (1. artikulua, 3. atala) mota kontzeptual hori osatzen duten hiru elementuak azaltzen dituen definizio hori esplizituki berresten du:

- 1. Lana edo zerbitzua:** lan mota guztiak hartzen ditu barne, edozein eremu, industria edo sektoretan egiten dela ere, ekonomia informala barne.
- 2. Edozein zigorren mehatxupear,** hau da, norbait lana egitera behartzeko erabiltzen diren zigor mota ugariak hartzen ditu kontuan.
- 3. Borondaterik eza:** “norbanakoak bere burua borondatez eskaintzeak” esan nahi du langile batek libreki eta jakinaren gainean egonda adostasuna ematea lan batean hasteko, eta lan horri uko egiteko askatasuna izatea edozein unetan. Ez da hori gertatzen, adibidez, enplegatzaile edo errekrutatzaile batek promesa faltsuak egiten dituenean langile bat bestela onartuko ez zukeen enplegu bat onartzera bultzatzeko.

Lan behartua langilearen eta enplegatzailearen arteko lan-harremanaren araberakoa da, eta ez du loturarik lanarekin berarekin. Alegia, lan bat behartutzat hartzeko, lan-harremanean derrigortze-moduren bat egon behar da, eta ez da kasu guztietan langilea lekualdatzen.

LANEK lan behartua dagoela zehazteko bost adierazle garrantzitsu identifikatu ditu:

- ✓ **Indarkeria fisikoa edo sexuala (edo horren mehatxua);** horrek tortura emozionala ere barnean hartzen du, hala nola xantaia, gaitzespena edo irainak.
- ✓ **Mugitzeko gaitasuna mugatzea,** lantokian edo eremu mugatu batean gelditzera behartuz.
- ✓ **Zorren ondoriozko lan behartua,** soldaten ordainketa atzeratzea edo ukatzea.

13 *La Trata de Personas con Fines de Explotación Laboral. Un estudio de aproximación a la realidad en España* (33. eta 34. orriak)

- ✓ **Pasaporteak edo bestelako nortasun-agiriak konfiskatzea**, langileari alde egiteko edo bere nortasuna eta egoera frogatzeko aukerarik gabe utziz.
- ✓ **Agintariei salatzeak mehatxu egitea.**

Garrantzitsua da ulertzea lan behartu oro ez dela pertsonen salerosketaren ondoriozkoa, bata ez baitu bestarekin berezko loturarik, eta, beraz, lan behartua egon daiteke, pertsonak erakarri, lekualdatu eta hartzearen prozesua gertatu gabe ere. Hala ere, pertsonen salerosketa-kasu gehienak lan behartura bideratuta daude (salbu organoak ateratzeko helburua duten salerosketa-kasuak); izan ere, prozesu guztiaren helburua, hain zuzen, helburuko herrialdean biktima esplotatzea baita, behartutako lanaren bidez (behartzeko bideak erabiltzen dira). ***Gaur egun, lan behartua eta pertsonen salerosketa esklabotza modernoaren forma berrizat hartzen dira.***

Pertsonen salerosketaren eta trafikoaren arteko desberdintasunak 14

PERTSONEN SALEROSKETA	MIGRATZAILEEN LEGEZ KANPOKO TRAFIKOAK
ADOSTASUNA	
EZ dago adostasunik biktimen aldetik, edo ez da baliozkoa, manipulazio, engainu edo behartze bidez lortu delako.	BAI, biktimen aldetik adostasuna dago (nahiz eta baldintza penagarriak jasan ditzaketen garraioak irauten duen bitartean).
ESTATUEN MUGAK IGAROTZEA	
EZ da derrigorrez gertatzen. Salerosketaren kasuan, lekualdatzea beti ez da mugaz gaindikoa; batzuetan biktimak herrialde baten barruan mugitzen dituzte. Bareko salerosketa deitzen zaio horri. Gainera, ez du axola biktimak nongo hiritartasuna duen edo zer egoera administratibo duen.	BETI gertatzen da Pertsonen trafikoak berezkoa du estatuaren mugak igarotzea, hau da, legez kanpo estatu batetik bestera igarotzea. Biktimak estatuko lurretan sartzeko baimenik ez duten atzerritarak dira.
ESPLOTAZIOA	
BETI gertatzen da. Pertsonen salerosketaren ezaugarri nagusia eta helburua da helmugako herrialdean biktima esplotatzea. Behin mugak igarotakoan, biktimak ez du askatasunik tratulariarekin duen harremana eteteko.	Ez da derrigorrezko gertatzen. Trafikoaren helburua migratzailea helmugako herrialdean sartzea da, eta behin mugak igarotakoan, trafikantzailearen eta bien arteko harremana eten egiten da.
IRABAZIEN ITURRIA	
Irabazi-iturri nagusia biktimen etorkizuneko esplotazioa da.	Pertsonen lekualdatzeak ematen ditu irabaziak.
BABESTUTAKO ONDASUN JURIDIKOAK	
Pertsona bera da. Pertsonen salerosketa askoz delitu larriagoa da, pertsonen oinarritzko eskubideen eta duintasunaren kontra egiten baitu.	Estatuen immigrazio-arauak dira. Estatuaren aurkako delitua da, batez ere; eta helburu nagusia da Estatuak migrazio-fluxuak kontrolatzeko duten eskubidea bermatze.
ERAKUNDE KRIMINAL ANTOLATUEN PARTE-HARTZE	
EZ da derrigorrezkoa.	EZ da derrigorrezkoa.

Garrantzitsua da honakoak kontuan hartzea:

Salerosketa-delitu bat gertatzeko, ez da beharrezkoa esplotazioa benetan gertatzea, baldin eta pertsona esplotatzeko ageriko asmoa badago. Hau da, definizioan jasotako ekintzaren bat egin bada aipatutako baliabideetako batekin (mehatxua/indarraren

erabilera, derrigortzea, bahiketa, iruzurra, engainua edo boterearen edo zaurgarritasun-egoeraren abusua), horiek adierazten baitute asmoa pertsona hori esplotatzea zela.

Salerosketa-delitua pertsona, erakunde eta bitartekari batek edo gehiagok egin dezakete, eta baliteke elkarren artean harremana izatea, baita antolatutako talde kriminal antolatu bat osatzea ere, edo baliteke haien artean inolako harremanik ez egotea, ez aldez aurretik, ez ondoren; nahiz eta definizioaren alderdi guztiak betetzen diren, eta horrek ez du esan nahi salerosketa delitua ez denik. Salerosketa-delitua gertatzeko ez da derrigorrezkoa talde kriminal antolatu bat inplikatzea.

Lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa azaltzen duten faktoreak

Delitu horren aurka borrokatzen duten nazioarteko erakundeek, hala nola Europolek, salerosketa bultzatzen duten bi faktore multzo identifikatzen dituzte, eta, kasu askotan, migratzaileen trafikoaren arrazoiekin bat datoz.

Faktore multzo batek (irteera-efektua) presio egiten die migratzaileei haien jatorrizko herrialdeetan tratuariengana jotzeko, eta beste multzoak (dei-efektua), helmugako herrialdetik, migratzaile potentzialak konbentzitzen ditu jatorrizko herrialdetik alde egiteko.

Honakoak dira presio egiten duten faktore nagusiak:

- 1. Jatorrizko herrialdeetako egoera ekonomikoa.** Migratzaileen jatorrizko herrialdeak egoera ekonomiko, politiko eta sozial prekarioan egon ohi dira, eta horrek galarazi egiten du gizartea berdintasunean eta duintasunez garatzea.
- 2. Ezegonkortasun politikoa eta gatazka armatuak.** Gatazkan edo trantsizio edo ezegonkortasun politiko egoeran dauden herrialdeetako biztanleek askotan bizi-alternatibak bilatzen dituzte egonkortasun sozial eta politiko handiagoa duten lekuetan.
- 3. Pobreziaren feminizazioa.** Leku askotan emakumeek zailtasun bereziak dituzte enplegua lortzeko eta familiaren beharrak asetzeko baliabide ekonomikoa eskuratzeko; gainera, familia gehienak ama baten esku daude, eta ondorioz, emakumeen artean pobrezia larriagoa da eta behar handiagoa dute migratzeko.
- 4. Arrakasta izateko itxaropen handiagoa.** Faktore erreal eta objektiboez gain, subjektiboak eta indibidualak ere badaude kasu honetan. Zehazki, helmugako herrialdean hobera egitearen irudipena elementu erabakigarria izan daiteke alde egiteko erabakia hartzean.

Horretan, jatorrizko herrialdeko komunikabideek paper oso garrantzitsua dute, eta, baita ere, migratzea erabaki duten senide eta ezagunen kontakizunek; askotan, esperientzia hori bizi ondoren, helmugako herrialdeen abantailak eta ontasunak soilik erakusten dituen irudia zabaltzen baitute, eta ez dituzte aipatzen migratzaileek jasan behar izaten dituzten arazoak. Hala, norbanakoengan arrakasta izateko itxaropena pizten dute, eta hori izan ohi da migratzea erabakitzeko pizgarri nagusia.

Erakarpen-faktore nagusiak, aldiz, honakoak dira:

- 1. Garatutako herrialdeetan enplegu-eskari handia dago**, batez ere, etxeko lanen, zaintzaren eta nekazaritzaren sektoreetan, herrialdeko biztanleriak ez duelako jardun nahi horietan.
- 2. Enplegu-eskari orokor hori, halaber, lan merkearen eta bereziki ezaugarriak diren lanpostuen eskaerari lotuta dago**, agintariek hain legeztatuta edo kontrolatuta ez dituzten sektoreetan edo kulturalki lan-baldintza ez hain zorrotzak onartzen diren sektoreetan; hala nola nekazaritzan eta etxeko lanetan.

Sektore horietan abusu handiagoak onartzen dira, eta ahulenen esplotazioa ahalbidetzen du horrek, hau da, etorkinena; izan ere, sektore horietako lan-eskubideei eta baldintzei buruzko informazio gutxiago dute.

Zehazki, etxeko lanen eta zaintzaren sektorea oraindik ere gainerakoak baino balio gutxiagokotzat hartzen da herrialde gehienetan, guztiz feminizatuta dago, eta beste sektoreetan onartzen ez diren gehiegikeria ugari gertatzen dira.

- 3. Demokrazia garatuagoak dituzten estatuaren egonkortasun politikoa** motibazio-faktore garrantzitsua da gatazka politiko edo armatuak dituzten lekuetatik datozen pertsonentzat.
- 4. Jatorrizko eta helmugako herrialdeen arteko lotura historiko, kultural eta linguistikoek** ere migratzaileak erakartzen dituzte. Hala ere, kontuan hartu behar da antzekotasun horiek gehiago eragiten dutela helmugako herrialde bat edo beste aukeratzean, migratu edo ez erabakitzean baino.
- 5. Baldintza ekonomiko, sozial eta politikoen hobekuntza** atzeritik datozen pertsonentzat oso erakargarria da. Beste herrialde batera migratzea erabakitzean kontuan hartzen dira faktore horiek (soldata hobeak, gizarte-laguntza eta osasun-zerbitzu integrala, helmugako herrialdeetako berdintasun-politikak eta abar).
- 6. Talde kriminalen presioa** faktore berri samarra da, eta horren sortzaileak migratzaileak trafikatzeko dituzten talde berberak dira. Negozio errentagarria denez, trafikoan jarduten duten talde kriminal berberak jarduera hori bultzatzen dute, berezkoa dena baino eskari handiagoa eraginez.

XXI. mendearen hasieratik, Europolen txostenek ohartarazi digute nola ari diren jarduten erakunde kriminalak etorkinen trafikoan; merkatua zuzentzen, irabazi ekonomikoak behartzen eta beren herrialdeetatik bestela irtengo ez lirakeen eta horretarako premiarik sentituko ez luketen pertsonak erakartzen.

Talde kriminalak elkarlana egiten dute, batez ere ondasunak estatu batetik bestera igarotzean eta mugak zeharkatzean. Elkarlan horren eraginez EBko kide berriak diren estatuetara zabaltzen dira, eta haien jarduera-eremua handitzen da. Europar Batasunean kide berriak sartzean, trafiko-ibilbide berriak eta negozio aukera berriak ireki ziren haientzat, portaera kriminal berriak erabili behar izan gabe.

III. BLOKEA: Arautze-markoa

Jatorrizko herrialdeetan eta Espainiako estatuan salerosketaren prebentziorako ingurune seguruak ezagutzeko eta horietan lan egiteko, funtsezkoa da estatuen ekintzen euskarri diren nazioarteko tresnak ongi ezagutzea. Jarraian, eta labur-labur, oinarritzko tresnak aipatuko ditugu: lehenik eta behin, nazioarteko tresnak, gero Europar Batasunaren esparruan eragiten dutenak, eta, azkenik, Espainiako eta EAeko araudia. Gainera, nazioarteko eta Europako beste tresna batzuk aipatuko ditugu, erakunde feministek era zabal eta azpimarragarrian erabiltzen dituztenak, emakumeen eta neska gazteen giza eskubideen defentsari zehatz erantzuten diotenak.

3.1 Nazioartea eta Europa

3.1.1 PALERMOKO PROTOKOLOA, Nazio Batuek Palermon (Italia) 2000. urtean sinatutakoa

Palermoko protokoloa “pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko” sortu zen, eta Antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen du. Nazioarteko tresna nagusia da pertsonen salerosketaren aurka egiteko. Pertsonen salerosketaren eta prostituzioaren aurka nazioz gaindiko mailan borrokatzeko legeri guztiak protokolo horretan oinarritzen dira¹⁵. Espainiak 2002ko otsailaren 21ean berretsi zuen protokolo hori. 2017. urterako 171 estatuk berretsi zuten.

Hainbat esplotazio motara bideratutako pertsonen merkataritzaz dihardu: prostituzioa, bestelako sexu-esplotazioa, organoen trafikoa, lan edo zerbitzu behartua, esklabotza, eta abar. Protokoloaren indargune nagusiak giza eskubideen aitortza eta salerosketaren biktimei behar bezalako babesa eta laguntza ematea dira.

Espainiari dagokionez, 2015eko CEDAWen itzal-txostena kontuan hartuta, uste dugu biktimen eta tratularien herrialdeetako agintari kontsularrekin komunikatzeko eta koordinatzeko ekintzak falta direla, Palermoko Protokoloa eta Varsoviako Hitzarmena betez dagozkion neurriak hartzeko.

3.1.2 PERTSONEN SALEROSKETAREN ETA BESTEEN PROSTITUZIOA ESPLATATZEAREN AURKA EGITEKO HITZARMENA

Hitzarmen horrek nazioarteko tresna ugari elkartzen ditu, eta haren markoan, prostituzioa eta prostituziora bideratutako pertsonen salerosketa gizakiaren duintasunarekin eta balioarekin bateraezintzat hartzen dira.

Hura sinatu duten estatuek hiru betebeharrak dituzte 1949ko hitzarmenaren arabera: trafikoa debekatzea, administrazio- eta exekuzio-neurri zehatzak hartzea, eta pertsonen salerosketaren biktimei zuzendutako neurri sozialak hartzea. Balio nabarmen gisa dauka “prostitutak” proxeneten biktimatzat hartzen dituen ikuspegia, eta “zurien trata” gisako termino arrazistak erabiltzea saihesten duel

3.1.3 PERTSONEN SALEROSKETAREN AURKA BORROKATZEKO EUROPAKO KONTSEILUAREN 197. HITZARMENA

Hitzarmen horrek honako helburu hauek ditu: gizakien salerosketa prebenitzea eta horri aurre egitea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz; gizakien salerosketaren biktimen eskubideak babestea; biktima eta lekukoentzako babes- eta

¹⁵ Nazio Batuen Batzarraren A/RES/55/25 ebazpena, zeinaren bidez aipatutako protokoloa berresten baita (Pertsonen salerosketa, bereziki emakume eta haurrena, prebenitu, zigortu eta zehatzeko Protokoloa, Antolatutako delitugintza transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa osatzen duena) Op. Cit.

laguntza-esparru oso bat sortzea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuz; ikerketa eta ekintza judizial eraginkorrak bermatzea; eta nazioarteko lankidetzaren sustatzea pertsonen salerosketaren aurkako borrokaren esparruan.

Ikusiko dugunez, salerosketaren aurka borrokatzeko Europako Kontseiluaren Hitzarmenak Palermoko Protokoloak emandako definizioa darabil (4.a artikulua eta 4.c artikulua), eta Palermoko Protokoloan jasota ez dagoen "biktima" definizioa ere jasotzen du. Hitzarmen hori pertsonen salerosketa-mota guztietan ezarri behar da, estatu barnekoak nahiz nazioartekoak izan, eta antolatutako talde kriminalekin lotura izan edo ez. Aipatzekoa da jarraipen-mekanismo propioa duela hitzarmen horrek.¹⁶

3.1.4 EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 2011/36/EB ZUZENTARUA, GIZAKIEN SALEROSKETA PREBENITZEARI, HORREN AURKA BORROKATZEARI ETA BIKTIMAK BABESTEARI BURUZKOA

Zuzentarau horrek pertsonen salerosketaren definizio zabala ematen du: Zuzentarau honek gizakien salerosketatzat hartu behar dena baino kontzeptu zabalagoa hartzen du, eta, beraz, beste esplotazio-modu batzuk barne hartzen ditu, hala nola eskean aritzera derrigortzea edo hainbat delitu-jarduera egiteko esplotatzea (kaleko eta saltokietako ebasketak, drogen trafikoa eta antzeko beste jarduera batzuk); izan ere, irabazi ekonomikoa eragiten duten legez kanpoko jarduerak dira. (...) Definizioak barne hartzen ditu, baita ere, legez kanpoko adopzioaren eta behartutako ezkontzen gisako jarduerak, salerosketarekin lotuta badaude. ¹⁷

3.1.5 ETXEKO ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA BORROKATZEKO ETA PREBENITZEKO EUROPAKO KONTSEILUAREN 210. HITZARMENA, ISTANBULEKO KONBENTZIO18 GISA ERE EZAGUTZEN DENA (2011)

Emakumeen aurkako indarkeria mota ugari definitu eta kriminalizatzen ditu hitzarmenak; esaterako, behartutako ezkontzak, genitalen mutilazioa, sexu-jazarpena edo emakumeen aurkako indarkeria fisikoa eta psikologikoa. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko, biktimak babesteko eta abusuak zigor gabe gera ez daitezken bermatzeko lege-esparru integrala sortzen duen munduko lehen nazioarteko tresna loteslea da.

3. artikulua. Generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak, horien ondorioz emakumeari kalte edo sufrimendu fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoa eragiten diotenak edo eragin diezaioketenak, egintza horien mehatxuak, hertsapena eta askatasun-gabetze arbitrarioak barne.

3.1.6. GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK. 2030 AGENDA

Pertsonen salerosketa behin betiko amaitzeko, sektore guztietan esfortzu sakona egin behar da. Pobrezia desagerraraztea (1. helburua), genero-berdintasuna lortzea eta emakumeak ahalduntzea (5. helburua), osoko enplegu produktiboa eta lan duina sustatzea (8. helburua), guztioi justiziarako sarbidea erraztea (16. helburua) eta 10.7 helburuaren bidez pertsonen migrazio arautua ahalbidetzea lagungarria litzateke pertsonen salerosketa-mota guztien aurka egiteko.

Zehazki, honako munduko helburuak betetzea azpimarratu nahi genuke: 5.1, emakume eta neskatuen aurkako diskriminazio modu guztiekin amaitzeko; 5.2, emakume eta neskatu

16 Europako Kontseiluaren 197. Hitzarmena, gizakien salerosketaren aurkako borrokari buruzkoa.

17 Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/36/EB zuzentaraua, gizakien salerosketa prebenitzeari, horren aurka borrokatzeari eta biktimak babesteari buruzkoa.

18 Istanbulen, 2011ko maiatzaren 11ean.

guztien aurkako indarkeria modu guztiak ezabatzeko eremu publiko eta pribatuetan; eta 16.2, amaiera emateko haurren kontrako tratu txarrei, esplotazioari eta indarkeria- eta tortura-mota guztiei.

Garapen Jasangarrirako Helburuek lan duina eta lan-baldintza seguruak azpimarratzeak ere lagun dezake lan behartua helburu duen pertsonen salerosketari heltzen. Nahitaezko lana eta bestelako esplotazio- eta abusu-moduak helburu dituen pertsonen salerosketa desagerrarazteko, lan duina lortzeko aukerak areagotu behar dira, migrazio segurua ahalbidetuz eta lan-arauak hobetuz (adibidez, nazioartean aitortutako arauak indarrean jarriz, hala nola kontratazioan osotasunez jokatzeko IRIS sistemaren jokabide-kodea). Ekintza horiek guztiak 2030 Agendak jasotzen ditu 8. eta 10.7 helburuetan.

3.1.7 EMAKUMEEN AURKAKO BEREIZKERIA MOTA GUZTIAK EZABATZEKO HITZARMENA (CEDAW) – 1989

Azpimarratzekoa da 7. artikulua, non eskatzen baitzaie estatuei neurri egokiak har ditzaten genero- indarkeriari dagokionez; izan ere, horrek urratu edo baliogabetu egiten ditu emakumeen giza eskubideak eta oinarritzko askatasuna, emakumeen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko hitzarmenaren esparruan. Baita ere 24 b) artikulua, zehazten baititu ondorengo kasuetan hartu beharreko jokabidea: familia barneko indarkeria eta abusuak, bortxaketak, sexu-erasoak eta bestelako genero-delituak.

Hitzarmenaren 2. artikuluko e) atalean, estatuei eskatzen zaie neurri egoki guztiak har ditzatela, edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen aurka eragindako bereizkeria ezabatzeko. Nazioarteko zuzenbide orokorraren eta giza eskubideen itun espezifikoaren arabera, estatuak ere egintza pribatuen erantzule izan daitezke, ez badute behar besteko arretaz jokatzeko eskubideen urraketak prebenitzeko edo indarkeria-egintzak ikertzeko eta zigortzeko.

3.1.8 NAZIO BATUEN EMAKUMEEI BURUZKO IV. MUNDU KONFERENTZIAREN EKINTZA-PLATAFORMA (BEIJING, 1995)

113 b) artikuluan zehazki jasotzen den moduan, "Gizartearen indarkeria fisikoa, sexuala eta psikologikoa, oro har, nahiz laneko, hezkuntza-erakundeetako eta beste eremuetako bortxaketak, sexu-abusuak, sexu-jazarpena eta larderia, baita emakumeen salerosketa eta prostituzio behartua ere".

3.1.9 LANGILE MIGRATZAILE GUZTIEN ETA HORIEN FAMILIAKOEN ESKUBIDEAK BABESTEARI BURUZKO NAZIOARTEKO KONBENTZIOA (1990)

Nazio Batuen konbentzio horretan, zehazki, 16. artikuluko 2.1. atala interesatzen zaigu: "Langile migratzaileek eta horien familiakoek estatuaren babes eragingarria jasotzeko eskubidea izango dute, funtzionario publikoek edo pertsona pribatuek, taldeek edo erakundeek eragindako indarkeria, gorputzeko kalte, mehatxu edo larderiaren aurka."

3.2 Espainiako Estatu

3.2.1 ESTATUKO SEGURTASUN IDAZKARITZAREN 6/2016 AGINDUA

Agindu hau Espainiako Poliziaren eta Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiei zuzentzen zaie, eta bertan "**pertsonen salerosketaren aurka egiteko estatu-mailako gizarte-bitartekari**" bat izendatzen da; haren eginbeharrak izango dira "lurraldeetako gizarte-bitartekariekin" lankidetzan aritzea eta koordinatzea, gizakien salerosketari buruzko informazio guztia zabalitzen dela bermatzeko, dela nazioko edo nazioarteko araudian, dela jurisprudentzian, edo gara daitezkeen polizia- edo gizarte-ekimenak direnean, bai eta elkarren artean informazioa trukatzeko dutela bermatzea ere.

3.2.2 4/2000 LEGE ORGANIKOA, ATZERRITARREK ESPAINIAN DITUZTEN ESKUBIDE ETA ASKATASUNEI BURUZKOA, ETA ATZERRITAR HORIEK GIZARTERATZEARI BURUZKOA

Aurrerapauso nabarmena izan zen biktimia zaugarrienen, hau da, egoera administratibo irregularrean dauden pertsona atzerritarren babesari dagokionez. Erreforma horrek bermatzen du gizakien salerosketaren biktimek laguntza integrala jaso ahal izatea, haien egoera administratiboa edozein dela ere, eta berrezartzeko eta hausnartzeko aldi bat ematea arautzen du, egoera irregularrean dauden biktimia atzerritarrei aukera ematen diena tratularien eraginetik urruntzeko, errekupeazio-prozesua hasteko eta delitua ikertzeko eskumena duten agintariekiko lankidetzari buruzko erabaki bat hartzeko, Varsoviako Hitzarmenaren 13. artikulua eskatzen duen bezala.

3.2.3 GIZA SALEROSKETAREN BIKTIMAK BABESTEKO ESPARRU PROTOKOLOA

Giza Salerosketaren Biktimak Babesteko Esparru Protokoloa 2011ko urriaren 28an onartu zen, Justizia Ministerioak, Barne Ministerioak, Lan eta Immigrazio Ministerioak, Osasun, Gizarte Politika eta berdintasun Ministerioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak eta Fiskaltzak adostutako akordio baten bidez.

Tresna horrek inplikaturako erakunde eta administrazioen koordinaziorako eta jarduerarako oinarriak ezartzen ditu, eta gobernuz kanpoko erakundeen, fundazioen edo irabazi-asmorik gabeko beste elkarte batzuen partaidetza-eremua eta -modua jasotzen ditu, betiere biktimen laguntzarako eta babesarako administrazio publikoek garatutako programetan espezializatuta badaude. Protokolo horrek, gainera, salerosketaren biktimia posible batek hautematen dutenetik zer fase igarotzen dituen azaltzen da, fase bakoitzean zer jarduketa egin behar diren zehazten da eta zer administrazio eskua hartzen duen identifikatzen da; gainera, horien artean koordinatzeko mekanismoak zehazten dira, baita biktimen laguntzan esperientzia egiaztatua duten bestelako erakundeekiko harremana ere.

3.2.4 EMAKUMEAK ETA NESKATOAK SEXU ESPLORAZIOARAKO SALEROSKETAREN AURKA BORROKATZEKO 2015-2018RAKO PLAN INTEGRALA

Biktimaren babesean eta erreparazioan jartzen du arreta ia osorik, eta horri esker, salerosketa-egoerak saihesteko proposamenak (prebentzioa) egiteaz gain, emakumeei laguntzeko mekanismoak indartu eta hobetzea ere eragiten du, batez ere ikuspegi psikosozial batetik. Pertsonen salerosketa penalki definitzen du, hura osatzen duten elementuak adierazten ditu eta politika eraginkor bat garatzeko oinarriko alderdiak eta ekintza integral bat osatzeko neurriak jasotzen ditu. Planaren arabera, autonomia-erkidegoak dira neurriak eta ekintzak diseinatzeko eta gauzatzeko ardura duten unitateak.

3.2.5 OSASUN-LANGILEEN JARDUNA SEXU-ESPLORAZIOARA BIDERATUTAKO SALEROSKETAREN AURREAN

Espainiako Osasun Sistemaren Lurralde Arteko Batzordeak onartu zuen eranskin hori, 2012ko Genero indarkeriaren aurrean izan beharreko Osasun-Jokabiderako Protokolo Komunaren gehigarri bezala. Era berean, 2015-2018 Sexu-esplotaziora bideratutako emakume eta neskatoen salerosketaren aurka borrokatzeko plan integralean ere jasota dago.

LAN-ESPLORAZIOARA BIDERATUTAKO SALEROSKETAREN ESPAINIARAKO LEGE-ESPARRUA

Gai horri buruzko arauak, orokorrean, pertsonen trafikoari egiten diote erreferentzia.

LAN-ESPLOTAZIORA BIDERATUTAKO PERTSONEN SALEROSKETA. ZIGOR-KODEAREN XEDAPENAK

- 10/1995 Lege Organikoa, azaroaren 23koa. XV. Titulua, langileen eskubideen aurkako delituei buruzkoa.

Espainiako zuzenbidean, sexu-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa definitzen da atzerritarren legez kanpoko trafiko-delitu larri gisa, eta, halaber, pertsonen salerosketa kontzeptua sexu-esplotaziora bideratutako atzerritarren legez kanpoko trafikora mugatzen du, hau da, ez ditu barne hartzen nazioarteko araudian sartutako bestelako pertsonen salerosketa motak (Zigor Kodearen 318 bis artikulua).

Lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketari dagokionez, uler liteke Zigor Kodearen 312. eta 313. artikuluetan, eta, neurri batean 311.an ere bai, langile espainiarrei edo atzerritarrei aplikatu ahal izango zaiela, legezko edo legez kanpoko egoeran badaude, eta lan-eskubideen gabezia edo murrizketa orokorra zigortuko dela.

BIKTIMEI LAGUNTZEKO ETA BABESA EMATEKO LEGEZKO NEURRIAK

Barne-araudian ez dago oraindik lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimezako laguntza eta babes zehatza emateari buruzko xedapenik, Salerosketaren aurkako Protokolotik eratorritako xedapenak ezartzen dituenik.

Atzerritartasun Legearen 59. artikulua, salerosketa-sare antolatuen kontra agintariekin elkarlanean jarduten duten biktimei egoitza-baimena emateari buruzkoa: Ez dator bat zuzentarauaren edukiaren alderdi garrantzitsu batzuekin.

Biktimei zuzendutako babes-mekanismoak Espainiako zuzenbidean:

- **ASILOA:** Dirudenez, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimek aukera handiagoa dute errefuxiatu-estatutua lortzeko, eta txikiagoa, berriz, lan-esplotazioaren kasuetan; izan ere, jatorrizko herrialdera itzultitakoan jazarpena jasateko beldurra ez dator bat errealitatearekin lan-esplotaziora bideratutako salerosketa-kasu gehienetan. Asiloa "babes subsidiario" moduan ere eman daiteke; bizitza galtzeko, tortura jasateko edo tratu edo zigor krudel, anker edo umiliagarriak jasotzeko benetako arriskua dagoen kasuetan ematen da.

- **ALDI BATERAKO BIZILEKU-BAIMENA ARRAZOI HUMANITARIOENGATIK:** Atzerritartasun Araudiaren 45.4 artikulua (Atzerritartasun Legearen 31.3. artikulua). Langileen eskubideen aurkako delituen biktimek izan diren atzerritarrak (Zigor Kodearen 311.-314. artikulua).

- **ALDI BATERAKO BIZILEKU-BAIMENA AGINTARIEKIN ELKARLANEAN ARITZEAGATIK:** Atzerritartasun Araudiaren 45. artikulua egon badagoen arren, praktikan, kasu horiek Atzerritartasun Legearen 59. artikulua bidez (antolatutako sare kriminalen aurkako lankidetzari buruzkoa) bideratzen saiatzen dira. Ondorioz, Atzerritartasun Araudiko 46. artikuluan zehaztutako prozeduraren bidez izapidetu daitezkeen kasuen kopurua murriztu egiten da.

- **SARE ANTOLATUEN KONTRA ELKARLANEAN ARITZEAGATIK EMATEN DEN BAIMENA:** Atzerritartasun Legearen 59. artikulua arautzen du, eta horren Araudiko 117. artikulua garatu egiten du. Ez da salerosketaren biktimei babes edo laguntza emateko neurri bat, baizik eta agintariekin elkarlana sustatzeko mekanismo bat, helburu zehatz batekin: sare kriminal antolatuen aurkako borroka.

Ez legeak ez araudiak ez dute kontuan hartzen lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimei egoera; soilik ikusten dituzte atzerritartasun legeria hautsi duen pertsona gisa.

3.3 Euskal Autonomia Erkidegoa

Eusko Jaurlaritzaren barne koordinazioko protokoloa, suspertzeko eta gogoeta egiteko aldiaren dauden sexu-esplotaziorako gizaki-salerosketaren biktimei laguntzekoa.19

3.4. Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa Espainian

Estatuko Fiskaltza Nagusiak egindako txostenaren arabera²⁰, 2013 eta 2018 artean 67 ikerketa ireki ziren *lan-esplotaziora* bideratutako gizakien salerosketa-delituengatik; horietatik ia erdiak artxibatu egin ziren (31), 36 izapidetze-fasean daude eta, guztira, hamaika epai eman dira. Delitu horiengatik jatorri ezberdineko 19 talde kriminal ikertzen ari dira (5 talde portugaldar, 4 errumaniar, 3 bulgariar, nikaraguar bat, pakistandar bat, perutar bat, txinatar bat, vietnamdar bat eta misto bat).

Espainian lan-esplotaziora bideratutako salerosketak, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren datu haztatuen arabera, **166 emakumeri (% 28,23) eta 422 gizoni (% 71,76) eragin die, eta horietatik 6 adingabeak dira (% 1,02)**. Jatorriaren arabera, biktimak honako taldetan banatzen dira: **biktima afrikarrak** (Angola, Gambia, Ginea, Mali, Maroko eta Senegaletik etorritakoak), **amerikarrak** (Argentina, Guatemala, Honduras, Kolonbia, Nikaragua, Peru, Paraguai eta Txiletik etorritakoak), **asiarrak** (India, Pakistan, Txina eta Vietnametik etorritakoak), eta **europarrak** (Bosnia, Bulgaria, Errumania, Errusia, Espainia, Frantzia, Lituania, Moldavia, Polonia, Portugal, eta Ukrainatik etorritakoak).

Lanera bideratutako salerosketa-kasu gehienak **sasoiko nekazaritzaren eta etxeko zerbitzuen** sektoreetan biltzen dira. Estatuko Fiskaltzaren txostenaren arabera, sasoiko nekazaritzan kasuak % 54 dira, eta etxeko zerbitzuenean, berriz, % 14,75. Gainerakoak ostalaritzaren eta kaleko salmentaren eremuan kokatzen dira.

Biktimak hautemateko, gehienetan, engainatu egiten dituzte: egoera oso prekarioan dauden pertsonen lana eskaintzen diete Espainian, ongi ordainduta dagoela eta baldintza paregabeak dituela esanez. Tratulariek bere gain hartzen dituzte garraioaren kostuak (kasuaren arabera, lurretik edo hegazkinez), baita EBtik kanpoko hiritarren dokumentazioak eragindakoak ere: gonbidapen-gutunak, bisa turistikoak, eta abar.

“Lan” egingo duten lekura iristean, tratulariek dokumentazioa atxikitzen diete, eta baldintza eskas eta osasungaitzetan ostatu ematen diete. Kasurik onenean, topera betetako “patera-pisuetan” edukitzen dituzte, eta, okerreanean, kortetan edo estalpeetan. Gehienetan, lantokian bertan bizi dira.

Kasu batzuetan, biktimek kexu eginez gero edo horien produktibitatea areagotze aldera, bortxa eta indarkeria erabiltzen dituzte. Etengabe erabiltzen dira, baita ere, mehatxuak eta lan-ordutegi jasanezinak eta gehiegizkoak, eta atsedeen unerik ez dute izaten askotan biktimek, ezta asteburuetan ere. Ingurunetik isolatuta bizi behar izaten dute, eta lan egin. Inoiz ez dira haien gutxienezko eskubide sozialak betetzen, eta ez dute osasun-zerbitzurik eskuragarri. Soldatak, halakorik badute, oso eskasak izaten dira.

19

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_guias/es_def/adjuntos/guia.protocolo.trata.ambito.judicial.cas.pdf

20 Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren Memoria 2019

Oso kasu gutxi amaitzen dira kondenazko epai batekin. Biktimak, askatutakoan, Estatutik ateratzen dira, prozesutik guztiz urrunduz (nahiz eta, gehienetan, aurretiazko froga egiten den), edo ez dute berresten hasierako salaketa.

V. BLOKEA.

EAEko tokiko eragileak salerosketaren aurkako borrokan

Salerosketaren tokiko testuingurua aztertzeko, beharrezkoa da gai horrekin lan egiten duten Euskadiko erakundeetatik abiatzen den hurbilketa bat egitea. Hemen jaso ditugun ondorioak gai horretan adituak diren erakundeekin (Gurutze Gorria eta Bilboko Askabide, esaterako) egindako aurrez aurreko elkarrizketetatik atera dira. EAEn salerosketaren biktimek duten egoera, salerosketaren aurkako borrokek dituzten erronkak, eta erakunde horiek proposatzen dituzten gainditze-bideak izan dira hizketagai nagusi.

5.1 Gurutze Gorria

21Gurutze Gorriak laguntza humanitariorako eta asilorako programak garatzen ditu, migratzaileei harrera egiteko eta laguntza juridikoa emateko, eta nazioarteko babes eskatzen dutenei aholkularitza juridikoa emateko. Programa horien bidez, Leire Nevadok eta Inés Herrerok, beren taldeekin batera, pertsonen salerosketaren biktima ugari hauteman ahal izan dituzte EAEn.

Erakunde gisa duen esperientzian, Gurutze Gorriak uste du salerosketa-kasu gehienak sexu-esplotaziorako direla, eta ikusi da Boli Kostako emakume gazteen ezkontza behartuak ugaritu egin direla salerosketa-modalitate gisa. Era berean, hasiera batean lan-esplotaziora bideratutako salerosketa kasu asko daude gero sexu-esplotaziorako baliatzen direnak.

Elkarrizketatuek azpimarratzen dute salerosketarako hautematen duten pertsonak edonolakoak izan daitezkeela: batzuetan, etorkizuneko senarra izaten da, edo biktimaren herrialde bereko norbait. Pertsona bat izan daiteke, edo pertsona-kate luze bat; horregatik, salerosketa- eta esplotazio-sarea argi ikustea zaila izan ohi da.

Orokortzea ezinezkoa den arren, erakunde honek hauteman dituen salerosketa-ibilbideak honakoak izan daitezke: jatorrizko herrialdean erakartzea, jada Europan dauden eta promesa faltsuen bidez migrazioa sustatzen duten pertsonen bidez; migrazio-prozesuan harrapatzea, biktimak bere jatorrizko herrialdea bere kabuz utzi ondoren; edo helmugan bertan hautematea.

Erakundeen esperientziak erakutsi digunez, oso anitzak dira norbait sare baten biktima dela adierazten duten ezaugarriak. Kasu batzuetan, hegoaldeko muga igaro berri duten emakumeen kasuan, esaterako, honakoak izan daitezke: norbere migrazio-ibilbideari buruzko ezjakintasuna, hau da, ez jakitea norekin eta noiz jarraituko duen aurrera, dei baten zain egotea, edo muga igaro berritan dirua edukitzea. Horiek ez dira faktore bakarrak, eta biktimaren jatorriaren eta salerosketa-sarearen arabera aldatu egiten dira, baina adieraz lezakete pertsona hori salerosketa-sare batean parte hartzen ari dela eta oraindik ez dakiela, esplotazioa ez delako hasi.

Egoera jakin batzuek biktimaren zaurgarritasuna areagotzen dute, eta horretaz aprobetxatu egiten dira tratulariak: familia barruko indarkeria jasan izana, tokiko hizkuntza ez jakitea, emakumea edo adin txikikoa izatea, herrialde ezezagun batera iristea, eta, batez ere, babes-sarerik ez edukitzea eta egoera prekarioan bizitzea, aurreratzeko egiazko aukerarik gabe.

Bilboko Gurutze Gorriko pertsonen salerosketaren adituaren arabera, Espainiako Atzerritartasun legea da, gaur egun, salerosketaren aurkako konponbideak ezartzea galarazten duen egiturazko traba nagusia: *“salerosketa gerta dadin pentsatuta dago”*, zioen Inesek. Lege horrek ez dizkie benetako aukerak eskaintzen etorkinei, haien oinarritzko giza eskubideak urratzen dituzte, eta ez die babes konkreturik eskaintzen salerosketaren biktimei. Legeak ez ditu etorkinen oinarritzko beharrak bermatzen (hezkuntza, osasuna, lana), eta, beraz, zaurgarritasun nabarmeneko egoeran jartzen ditu, eta esplotatzaileak horretaz aprobetxatzen dira.

Azkenik, Gurutze Gorriak azpimarratzen du behar-beharrezkoa eta presazkoa dela pertsonen salerosketaren aurkako lege integral bat sortzea, salerosketa jasan duten pertsonetan eta haien oinarritzko eskubideetan arreta jarriko duena, osasuna, hezkuntza eta lan duina bermatzeko modu parekide eta bidezkoan. Ez da nahikoa delituak jazartzera eta sareak desegitera mugatzen den lege bat. Lege horrek, gainera, gizarte-erakundeei biktimak identifikatzea ahalbidetu behar lieke, horrek asko erraztuko bailuke haien eskubideak betetzea. Bizi-proiektuak benetan eraikitzen uzteak, hau da, haien giza eskubideak kontuan hartzea, edozein dela ere haien jatorria edo egoera soziala, benetako ahalduntzea ekarriko lieke.

5.2 Askabide

22Askabide elkartean Lorena Cacho elkarrizketatu genuen, prostituzio behartua helburu duen salerosketaren programaren arduraduna. Bilbon kokatzen da elkartea, eta salerosketaren biktimentzako arreta integrala eskaintzen duten bakanetakoa da: bertan kaleko hautemate-programak, egoitza-programak eta biktimei arreta mugikorra emateko programak antolatzen dira. Zerbitzu ugari ematen dituzte programa horien bidez (laguntza psikologikoa, aholkularitza juridikoa, lan-orientazioa eta prestakuntza-tailerrak, esaterako) eta 20 emakumerekin egiten dute lan gaur egun.

Askabideko langileek ezagutu dituzten kasu gehienetan egoera batzuk errepikatzen dira, eta egoera horiek izan daitezke emakumeak salerosketa-sare baten biktima izatearen adierazleak: herrialdean denbora bat ematea, baina, hala ere, hizkuntza ez hitz egitea; Estatu barruan etengabe mugitzea eta herrialdera iristeari buruzko kontakizunek logikarik ez izatea.

Gurutze Gorrikoek bezala, Askabidekoek ere antzeman dute biktimak indarkeriazko eta egoera ekonomiko eskaseko testuinguruetatik datozela, eta horrek bultzatu dituela bizitza hobe baten bila abiatzera, baina, gero, eremu babesgabe batean aurkitzen dira, eta salerosketa-sareetan erortzen dira. Gainera, behatu dute Espainian esplotatzeko Latinoamerikako herrialdeetatik ekartzen dituztela biktima gehien (Kolonbia eta Paragwaitik, esaterako), eta Afrikatik datozen emakumeak, berriz, Frantziara eta Italiara eramaten dituztela han esplotatzeko.

Askabide elkartearen esperientziaren arabera, honako egoerak bizi dituzte esplotatutako emakume eta adingabeek: behartutako sexu-lanak, dokumentazioa atxikitzea, 12 orduko gorako lanegunak, hegazkin-txartelen ondoriozko zorrak, arrisku handiko egoeretan prostituzioa praktikatzea, gehiegizko ostatu- eta janari-kostuak, soldata hutsalak, indarkeria, behartzea eta etengabeko mehatxuak.

Afrikako emakumeak Marokotik eta Libiatik pasatzen dituztela behatu dute, Europako hegoaldeko muga zeharkatzeko; Latinoamerikakoak, berriz, hegazkinez ekartzen dituzte Espainiara, eta garraioa esplotatzaileek ordaintzen diete, gero zorra eragiteko biktimei.

Elkartek dioenez, salerosketaren fenomeno duela 10 urte inguru tipifikatu bazen ere, oraindik asko dago ikasteko. Bai polizia-agenteei, bai esku hartzen duten erakunde eta

instituzio guztiek etengabe formatzen eta informazioa eskuratzen jarraitu behar dute jakiteko zer salerosketa-modalitate berri, ibilbide eta bitartekari dauden, esplotazioen irabaziak nork jasotzen dituzten, eta zein izan behar den delitu horren biktimak babesteko hurbilpen egokiena.

Borroka eraginkorra izan dadin, estatu-mailako lege bat sortu behar da, salerosketa-modalitate guztiak kontuan hartuko dituen, eta esplotazio-egoera jasaten duten pertsona guztiak babesteko dituen, delituaren jazarpenean soilik ardaztu ordez. Emakumeak direnez biktima gehienak, babes-politika horiek genero-ikuspegitik diseinatu behar dira.

EAEko testuingurutik at dagoen arren, aipatu nahi genuke prostituzio egoeran dauden emakumeei laguntzeko Bartzekolako Unitate Mugikorrek ematen duen zerbitzua. Izan ere, salerosketa prebenitzeko lan oso garrantzitsua egiten dute.

5.3 Malen Etxea: Lan-esplotaziora bideratutako salerosketa EAEn

Esan bezala, lan-esplotaziora bideratutako salerosketa da pertsonen giza eskubideak eta oinarrizko eskubideak urratzen dituen delitu horren modalitaterik ikusezinena; izan ere, herrialde honetako hiritar gehienak, hiritartasun osoa izanik, ez dira jabetzen ezkutuko ekonomiaren baitan bi gauza desberdin direla enplegu irregularra eta oinarrizko eskubideak urratzen dituzten delituak.

Kontzientzia kolektiboaren muinean honako ideia dago: ekonomia informalaren oinarrizko lanak (etxeko zerbitzuak, zaintza eta nekazaritza) balio gutxiko lanak direla, materialki apalagoak, eta lan horiek egiten dituztenak pertsona pobreak, etorkinak, eta, gehien bat, emakumeak direla. Ikuspuntu horretatik (giza eskubideen eta eskubide zibilen, politikoen eta sozialen balioa ezagutu arren) ez dute lortzen langile migratzaileek jasaten dituzten eskubide-urraketa horiek lotzea kolektibo horiek jasan ohi duten lan-esplotazioarekin.

Txosten honen ondorioetarako, nazioarteko tresna eta hitzarmen ugaritan aitortutako kontzeptualizazio honetatik abiatzen gara:

Lan-esplotaziora bideratutako pertsonen salerosketa, beraz, lan-esplotazio edo bortxazko lan mota zehatz bat da; izan ere, lan-esplotazioa jasaten duten pertsona guztiak ez daude pertsonen salerosketa-prozesu batean sartuta, baizik eta egoera horretara iritsi dira beste egoera batzuen ondorioz.

Eta azken urtean Malen Etxea elkarteak emakume etorkinei zuzenean eman dien arreta azalduko dugu; kasu horiek, tipo penala ezartzeak dituen zailtasunen ondorioz salaketak gauzatu ezin izan diren arren, txosten honen ondorioetarako, hau da, Gipuzkoan eta EAEn gertatzen ari dena testuinguruan kokatzeko, lan-esplotaziora bideratutako salerosketa moduak dira, antolatze modu kriminal berrietara egokitutakoak.

Malen Etxea emakume etorkinen elkarte da, eta haren ardatz nagusia EAEn emakume langile atzerritarren lan-eskubideak defendatzea da. Eskaintzen dituen zerbitzuen artean Malen Etxea aterpea dago; bertan, besteak beste, lan-esplotazioaren biktima diren emakume etorkinak hartzen dituzte, haien jatorrizko herrialdeetan jarduten duten sareen bidez Espainiara iritsitakoak.

Biktimak erakartzea eta sareen taktika kriminalak

Malen Etxeak hartutako pertsonen kasuan, emakumeen jatorrizko herrialdeetan egin zen harrapaketa, baina ez hurbileko lagunen bidez, baizik eta “herriko” ezagunen baten bidez. Hark, jakinik zer egoeratan dagoen emakumea, Europan bizi den lagun batekin harremanetan jartzea proposatu zion, ongi doakiola eta lagundu diezaiokeela esanez. Kasu gehienetan, bizitza hobetzeko proposamen hori emakume oso gazteei egiten zaie, oinarrizko heziketa eta haur txikiak dituztenei.

Nikaraguako herri bateko emakume baten kasuan, harremana Bilbo Handian bizi den beste emakume nikaraguar batekin egin zuen: azken horrek iristean lagunduko ziola esan, eta Nikaraguatik ateratzen lagunduko zion pertsonarekin harremanetan jarri zuen. Hark dokumentuak eta dirua emango zizkion, bidaia hasi ahal izateko.

Pertsona hori, kasu honetan, herriko alkatearekin eta haren egitura politikoarekin lotura zuzena zuen emakume bat zen. Inguru hartan “andereñoa” ezizenez ezagutzen zen, eta haren bulegoan egiten zen bidaiaren kudeaketa 48-76 ordutan: hegazkin-txartela erosi, pasaportearen izapidea egin, baita maleta eta arropa batzuk erosi ere.

Egun gutxi batzuen buruan, biktimak prest zuen dena bidaiarako, eta hitz eman zioten Bilbora iristean norbait zain izango zuela eta handik egun batzuetara adineko pertsonak zaintzen hasiko zela, 1800 euroko soldatarekin, eta, hala, ez zuela arazorik izango hilean 900 euroko zorra ordaintzeko.

Tratua ixtean, biktimak baldintza horiek onartu zituen eta “andereñoaren” esku utzi zuen hurbileko senide baten ondasuna, jakin gabe zein zen zorraren zenbateko osoa.

Bidaiari ekin aurretik, “kudeatzaile eta mailegu-emalleak” pasaportea, hegazkin-txartela, maleta, 900 euro eskudirutan, eta Bilboko harremanetarako pertsonaren zenbakia eman zizkion biktimari. Hegazkinean sartzean, kudeaketa-sistema berberak “lagundu” zion beste emakume batekin egin zuen topo, *“beti binaka etortzen ginen”*.

Helmugara iritsitakoan, Bilboko emakumeak bidalitako taxi bat zuten zain, eta hark emakumearen etxera eraman zituen. Bertan egoera berean zeuden beste asko: “hamabost-edo ginen”. Etxe hartan, anfitrioiak biktimek zeuzkaten 900 euroak emateko exijitu zien, eta jakinarazi zien zorra 8.500 dolarrekoa zela (9.350 euro), eta ordaindu ezin bazuten, % 1,5 igoko zela hileroko, edo “andereñoaren” eta Bilboko kontaktuaren irizpide arbitralen arabera. Izan ere, normalean, biktimek zorraren guztirakoa bakarrik zekiten. Kasu horretan, 15.000 dolarreko zorra zuen, eta biktimak sekula ez zuen euro horietako bat ere eskuratu. Modus operandi eta tokiko kontaktu berdinekin, hiru emakume nikaraguar identifikatu dira²³, baita Bizkaiko etxebizitza ere. Pisu horrek harrera-etxe gisa funtzionatzen zuen, eta handik bidaltzen ziren emakumeak partikularren etxeetara, adineko pertsonak eta haurrak zaintzera eta etxeko lanak egitera.

Malen Etxeak identifikatutako bigarren ibilbideak Nikaraguako herri eta komunitateak Bilborekin eta Sevillarekin lotzen ditu. Kasu horietan, Bilboko kontaktuek, egunak igaro ahala, edo biktimek laguntza-erakundeekin ustekabean izandako harremanen ondorioz, beste hiri batzuetara lekualdatzeko presioa egiten hasten ziren. Berehala joan zitezten saiatzen ziren eta xehetasun gutxi ematen zieten lan-baldintzei eta zerbitzua kontratatu nahi zuen pertsonaren helbideari edo datuei buruz.

23 Malen Etxeak beretzat gordetzen ditu, biktimak babesteko neurri gisa, artatutako emakume nikaraguarren komunitateen eta jatorrizko herrien xehetasunak.

Malen Etxeak “Sevillako konexioa” deitzen diona aztertuta, ikusi dugu zuzenean artatutako kasuetatik bik sektorearen esplotaziozko baldintza naturalizatuak zituztela: barneko etxeko lana, asteburuko atsedetik, jaiegunik eta aparteko pagarik gabe; beste kasu batean zorrak ordaintzeko baliabiderik ez zuen pertsona bat “sexu-lana” egitera behartzen saiatu ziren, eta azken kasu batean, ez zegoen Sevillara iritsi izanaren daturik.

Malen Etxeak ikusi ahal izan duenez, lan-esplotaziora bideratutako salerosketa oso zaila da identifikatzen, zeren biktimak lan egiten duten etxeetan preso egon ohi dira, ez dute denbora libererik, eta, gainera, ez dira jabetzen engainu baten biktima direla. Uste dute emakume migratzaile guztiak zorpeko egoera berean iritsi direla; horregatik, lan-esplotazioko egoera ohikoena da zorren ondoriozko lan behartua.

Elkarteak behatutako kasuetan, biktimek itxuraz askatasuna zuten, eta hertsapena soilik antzematen zen harremanetarako pertsonak mugikorrera deitzen zienean: ez ziren ausartzen kontra egiten, ezta non zeuden ez esaten ere; izan ere, hertsapenaren eta beldurraren amarrua haien jatorrizko herrian zegoen, biktimen hurbileko senideek (amak edota haurrek) zituzten ondasunak galtzeko mehatxua baitzuten etengabe.

Biktimen trataera

Azkenik, jasotako esperientzia apurrean oinarrituta, honakoa ikusi dugu: salerosketaren biktimei ematen zaien laguntza aldatu egiten dela kasuaren arabera, egoera irregularrean dauden langileen eskubideen aurkako delituen biktimentzat ez dela aurreikusten suspertzeko eta gogoeta egiteko aldi hori, eta Espainian egoteko beharrezkoa den dokumentazioa eskuratzeko baldintzak desberdinak direla haientzat.

Dokumentuak eskuratzeko, delitu horien biktima direla egiaztatzen duen epai penal bat jaso arte itxaron behar dute, edo, bestela, agintariekin elkarlana egin behar dute. Elkarlan horrek sare antolatuak jazartzeko balio badu soilik emango zaie bertan bizitzeko eta lan egiteko baimena, edo, bestela, nahiago badute, haien herrialdera itzultzeko laguntza jasoko dute.

6. BLOKEA:

Nazioarteko testuingurua hegoaldeko herrialdeetan

Pertsonen salerosketa-sareek nazioartean finkatzea lortu dute, eta, beraz, osagai globalari heltzeko, hegoaldeko herrialdeen egoerak aztertu behar dira, hangoak baitira jatorriz salerosketa-delituen biktima izateko arrisku gehien duten pertsonak. Atal honetarako, EAErekin gaur egun gai horretan lan-harreman estua duten herrialdeak hautatu ditugu.

6.1 Peruko egoera eta testuingurua

Peru pertsonen salerosketaren jatorri- eta helmuga-herrialdea da. 2017an Peruko polizia nazionalak argitaratutako zifrek agerian uzten dute premiazkoa dela estatu mailan datu-base komun bat izatea, eta 2018ra arte salerosketaren 9414 biktima izan direla kalkulatu da, horietatik % 93 emakumeak. Salaketa gehien jasotzen dituzten eskualdeak, bestalde, hauek dira: Arequipa, Cusco, Lima, Madre de Dios, Loreto eta Puno.

RETA erregistro sistemaren arabera, 2019. urtetik 2018ko abuztura bitartean 1471 salaketa jarri ziren; horietatik % 64 sexu-esplotaziora bideratutako salerosketa-kasuak ziren, % 31 lan-esplotaziokoak, % 3 eskean aritzera derrigortutako pertsonenak eta % 1 organo-trafikoarenak.²⁴

Estatuaren jazartzeko gaitasunari dagokionez, esan behar da justizia-operadoreek dituzten tresnak, baliabideak eta antolatze gaitasuna mugatuak direla delitu horretan diharduten mafia

boteretsu eta ongi antolatuei aurre egiteko. Horrek zaildu egiten du arduradunak antzemateko, auzipetzeko eta epaitzeko gaitasuna eta aukera. Edonola ere, arlo horretan aurrerapauso batzuk eman dira.

2007an indarrean sartu zen 28950. legea, pertsonen salerosketaren eta migratzaileen legez kanpoko trafikoaren aurkakoa; horrek pertsonen salerosketan diharduten mafiak detektatzea ahalbidetu eta erraztu zuen, eta, gainera, biktimak babesteko eta laguntzeko neurriak ezarri zituen.²⁵

Lege horren arabera, haurrak saltzea, eskean ibiltzea, sexu- eta lan-esplotazioa eta organoen erauzketa edo trafikoa pertsonen salerosketa-delitu gisa tipifikatuta daude, eta 35 urtera arteko kartzela-zigorra eragin dezakete.

Txosten ofizialen arabera, pertsonen salerosketatik zigortutako presoen % 40,1 emakumezkoak dira, eta % 59,9 gizonezkoak.

Ez da arraroa salerosketaren biktima diren emakumeak zigortuak izatea salerosketa-egoerarekin lotutako delituengatik, behartu egiten baitituzte delituzko ekintzak egitera.²⁶

Perun pertsonen salerosketaren analisi egoki bat egiteko, beharrezkoa da herrialde horretako indarkeria matxista aztertzea lehenbizi, hori baita salerosketa-delituak betikotzea eragiten duen arrazoi nagusietakoa. Kalkuluen arabera, 2018ra arte, Perun 113.727 emakumek jasan dute bikotekidearen edo bikotekide ohiaren aldetik indarkeria fisikoa, sexuala eta/edo psikologikoa. Indarkeria hori, gerora, emakumeen gorputzen kontsumoan eta trukean islatzen da salerosketa-sareen barruan. Salerosketak irauteko funtsezko oinarria, indarkeria matxistarekin batera, honakoek osatzen dute: gizartearen oinarriko beharrak ase gabe egotea, Peruko biztanleen giza eskubideen etengabeko urraketak, eta zaurgarritasun-egoeretan migratzeak dakartzan ondorioei buruzko gizarte-informaziorik ez edukitzea. Errealitate horiei muzin egitea aukeratzen duen estatu bat hutsune handi bat duen estatua da, eta, batez ere, herrialdean milaka emakumeren bizitza ebasten duten salerosketa-sareen konplize da, emakume horiek erabat ikusezinak izatea eragiten baitu.

6.2 Argentinako egoera eta testuingurua

Pertsonen salerosketaren Argentinako problematika sozialari dagokionez, krimen antolatu forma hartuz bertan ezartzen diren hainbat faktore zehaztu ditzakegu. Bestalde, ulertzen dugu hura hedatzea ahalbidetzen duten egoerak herrialdearen subiranotasunetik haragoko akordio eta baldintzekin lotuta daudela.

Sistema oro bezala, salerosketa ere modu zehatz batean antolatutako harreman sozialek osatzen dute, norma batzuek arautzen dute, sustengatzeko egiturak eta kultura bat ditu, eta kulturalki egituratutako eta definitutako sinbolo multzo bat partekatzen duten instituzio eta egileak ditu. Proxenetek, prostituzio-kontsumitzaileek ("bezeroek"), hedabideek eta gizartearen zati handi batek osatzen dute sistema hori, eta naturalizatu eta legitimatu egiten dituzte praktika horiek, politikarien, epaileen, polizien, akademikoen, erlijioen, nazioarteko erakundeen, legezko enpresen eta prostituzioaren multinazionalen (hala nola, turismo sexualen aritzen diren enpresen) konplizitatearekin. Horien bidez bideratzen da prostituzio-jardueretatik irabazitako diruaren garbiketa.

2008an, pertsonen salerosketa prebenitzeko eta zigortzeko eta biktimei laguntzeko 26.364. legea berretsi zen. Hainbat gizarte-erakunderen borroka nekaezinaren ondoren, 26.842. legea promulgatu zen. Lege horren ondorioz salerosketa-delituen kondenak luzatu ziren, prozesu judiziala azkartu zen, biktimaren adostasuna ezabatu zen prostituzioa sustatu eta biktima esplotatu duenaren errua murrizteko elementuen artetik, eta salerosketaren aurkako borrokarako kontseilu federal bat eta biktimari laguntzeko batzorde exekutibo bat eratu ziren. Harrez gero, salerosketa delitu federala da eta biktimek eskubide gehiago dituzte. 2012an Alika Kinan-en kasua gertatu zen: lehen biktima izan zen kereila-jartzaile gisa bere proxeneta

²⁵ 28950. legea, pertsonen salerosketaren eta migratzaileen legez kanpoko trafikoaren aurkakoa.

²⁶ LA TRATA DE PERSONAS CON FINES DE EXPLOTACION SEXUAL Y EL IMPACTO DE LAS MIGRACIONES EN PERU- Andrea Quirol Lipkovich-en hitzaldia, Donostian, 2019an

salatzen, eta lau urte geroago, epai historikoa eman zuten: Suaren Lurraldeko kriminal federaleko ahozko auzitegiak Pedro Montoya, haren proxeneta, kondenatu egin zuten.

Salerosketaren aurkako borrokarako gomendioak

Erabat beharrezkoa da lehorreko eta itsasoko bidaiak kontrolatzea; izan ere, gure herrialdean ez dago modu horietan bidaiatzen dutenen kontrol sakonik. Gaur egun hegazkinez bidaiatzen duten pertsonen kontrol handiagoa badago ere, beharrezkoa da prebentzio- eta kontzientziazio-kanpainak egitea. Izan ere, hegaldia une ezin hobea da salerosketa-egoeran dagoen pertsona bati erreakzionarazteko, laguntza eska dezan. Autobus, portu eta aireportuetako terminal guztietan prebentzio-kanpainak ezartzea funtsezkoa da lekualdatze-fasean dagoen biktima bat egoera horretatik ateratzeko helmugara iritsi aurretik. Biktimak erakartzeko bitarteko guztiak ebaluatu eta transmititu behar dira, hala nola, lan-eskaintza faltsuak eta salerosketaren adierazleak, egoera horretan dagoen pertsona batek ezagutu ditzan.

Baina politika publikoen helburu nagusia, salerosketaren aurkako borrokan, izan behar litzateke esku-hartzeak bideratzea balio-sistema eta gizarte-egitura hegemonikoak desagite aldera, eta hala, esplotazioaren kontsumoa ez ezik, biktimen hautematea ere saihesteko.

Aipatzekoa da, gai horrek duen izaera globala dela eta —salerosketa irauarazten duen sistemari eusteko nazioartean ezarritako sareek adierazten duten gisan—, beharrezkoa dela nazioartean akordio eta egiturak sortzea, ahalbidetuko dutenak biktimengan esku hartzeko tresnak eta mekanismoak hobetzeko eta biktimak bilatzeko elkarlana.

6.3 Nikaraguako egoera eta testuingurua

Nikaraguaren kasuan, estatistika-datu ofizialek eta erakundeek jasotakoek ez dute mugatzen sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren neurria, delitua kontzeptualizatzea zaila baita barne-arauetan. Gobernuak, 2014. urtean, salerosketarako berriazko lege berri bat onetsi zuen, sexu- eta lan-arloko delituetarako zigor zorrotzak ezartzen dituena. Hala ere, pertsonen salerosketaren definizio hori ez dator bat nazioarteko legeriarekin: pertsonen salerosketa beste delitu batzuekin konbinatzen du, hala nola legez kanpoko adopzioarekin; eta indarra, hertsapena edo engainua faktore astungarritzat hartzen ditu, salerosketa-delitu gehienen funtsezko elementu gisa hartu ordez.

Datu ofizialen arabera ("Nikaraguako Estatuaren ekintzak pertsonen salerosketaren aurka, 2014ko urtarriletik 2017ko abendura" eta OIM erakundeak 2018ko otsailean eta martxoan Chinandegako departamentuan egin zuen pertsonen salerosketari eta migrazio irregularrari buruzko erkidegoaren diagnostikoa), salerositako 30 pertsonaren kasuak ikertu eta epaitegietara eraman ziren. Bestalde, 73 biktima identifikatu ziren, erasotzailea ezagutzen zutenak. Kasu guztietan zuzeneko lotura bat zegoen: senideak, lagunak, auzokoak edo lankideak ziren.

Pertsonen salerosketari eta migrazio irregularrari buruzko erkidegoaren diagnostikoaren arabera (OIM, 2018), Chinandegako departamentuan elkarriketatutako 200 pertsonetatik % 12,6k adierazi zuen bazutela pertsonen salerosketarekin lotutako kasuen berri, eta, gutxienez, 45 salerosketa-kasu identifikatu ziren. Egoera horien berri ez zitzaien eman agintariei, bai biktimek tratularien aldetik errepresaliak jasotzeko zuten beldurratetik (% 52,7) baita ezjakintasunagatik edo informaziorik ezagatik (% 29,7) ere.

Migratzaileen profiei buruzko inkestan (DTM, 2018ko abuztua - iraila), pertsonen salerosketak migrazio-fluxuak hazten ari diren komunitateetan dituen arriskuak eta eragina aztertu ziren.

➤ % 34,4k (119 etxe) bidaiatzeko promesak jaso zituztela esan zuten. Egindako promesen artean, honako hauek nabarmentzen dira: enplegua (%18,3), familia berriz elkartzea (%7,7), ikasketak/babesa (%3,7).

➤ Eskaintza egin zutenak honakoak izan ziren: lagunak edo ezagunak (% 8,9), bestelako pertsona batzuk (% 8,2), urruneko ahaideak (% 4,6) eta ezezagunak (% 3,4).

➤ Eskaintza egiteko modalitate edo baliabide nagusiak hauek izan ziren: telefonoz (%10,1), etxean (%8) eta sare sozialetan (%4,8).

DTMk egindako pertzepzio-inkestaren emaitzen arabera (pertsonen salerosketaren eragina aztertu zuen komunitatean, OIM, 2018ko uztaila), komunitateetan pertsonen salerosketaren eraginari buruzko pertzepzioa handia da.

Egoera gehienak herrialdearen iparraldean gertatu ziren, Hondurasko eta Costa Ricako mugetan dagoen lan-esplotazioari lotuta.

Hauek dira biktimak erakartzeko erdigune gisa identifikatutako eremuak: Managua, Chinandega, Carazo, Masaya, Nueva Segovia, Matagalpa, Estelí, León, Bluefields. Eta helmugak, berriz: Guatemala, Panama, El Salvador, Estatu Batuak eta Belize.

AEBetako Estatu Departamentuak Nikaraguako pertsonen salerosketari buruz 2016ko ekainean argitaratu zuen txostenaren arabera, sexu-salerosketaren eta bortxazko lanaren mende dauden gizon, emakume eta haurren jatorri eta igarobidea da Nikaragua, batez ere. Nikaraguako emakume eta haurrak sexu-esplotaziorako salerosten dituzte herrialdean bertan nahiz Erdialdeko Amerikako beste herrialde batzuetan, Mexikon eta Estatu Batuetan.

Salerosketaren biktimak landa-guneetan edo muga-eremuetan errekrutatzen dituzte, hiriguneetan eta lokal turistikoetan lan egitearen truk soldata handiak jasoko dituztela hitz emanez, eta horietan sexu- edo lan-esplotazioa jasaten dute. Biktimen senideak, maiz, haien esplotazioaren konplizeak dira. Nikaraguako emakume eta haur asko Karibeko bi eskualde autonomoetan salerosten dituzte sexu- eta lan-esplotaziorako; izan ere, ordena publikoko erakunde sendorik ezak eta kriminalitate-tasa handiak tokiko biztanleriaren zaurgarritasuna areagotzen baitute.

Zenbait txostenen arabera, Nikaraguako Erdialdeko eta Iparraldeko departamentuetatik Erdialdeko Amerikako eta Europako beste herrialde batzuetara migratzen duten pertsonak arrisku handia dute sexu- eta lan-esplotazioaren sareetan erortzeko. Era berean, migratzaile horiek Nikaraguan uzten dituzten haurrek ere, txostenen arabera, sexu- eta lan-esplotazioa jasateko arriskua izan ohi dute. Nikaraguako helduek eta haurrek lan behartua egiten dute nekazaritzan, eraikuntzan, meatzaritzan, sektore informaleko lanetan eta etxeko lanetan, bai herrialdearen barruan, baita Costa Rican, Panaman, Estatu Batuetan eta beste herrialde batzuetan ere. Meatze eta harrobietako artisau-erazketaren sektorean haurrek lan behartua egiten dute maiz.

Nikaraguara turista ugari joaten dira Estatu Batuetatik, Kanadatik eta Europako mendebaldetik, bertako haurrak sexualki esplotatzera.

Tokiko erakundeek azaltzen dutenez, gobernuak ez du aurrekonturik bideratzen biktimentzako arreta-zerbitzu egokietarako, ez du talde zaurgarrien artean biktimak identifikatzeko prozedura formalik, eta gai horri zuzenean heltzen dioten funtzionarioek ez dute behar bezalako prestakuntzarik salerosketa modu guztiak identifikatzeko. Gainera, gobernuak buru zuen salerosketaren aurkako koalizioak eta haren eskualdeko lan-taldeen kasu gehienetan, ez zuten jarduerarik izan azken aldian, eta salerosketa-lege berriaren funtsezko elementuak ?hala nola salerosketaren aurkako funts berezia? ez ziren ezarri.

6.4 Kolonbiako egoera eta testuingurua

2016 eta 2017 bitartean, Kolonbiako Barne Ministerioak pertsonen salerosketako 163 kasu identifikatu zituen, 72 kasu 2016. urtean eta 91 kasu 2017. urtean. Bi urte horietan, biktimen % 88 emakumeak izan ziren, eta % 67k 20 eta 34 urte bitarte zituzten. Delituaren helburuari dagokionez, salerosketaren biktima diren emakumeen %79 sexualki esplotatzen dira.²⁷

Medellinen neskatoak eta emakumeak biktima-egoeran jartzen dituen salerosketaren

28

delitua deskribatzen duen azterlanaren arabera, Medellin, Cartagena, Cali, Bogota eta kostaldeko eta turismo zehatza duten zonaldeak dira salerosketa garatzeko arrisku handieneko eremuak. Gainera, berresten du gatazka armatuak eta legez kanpoko taldeen presentziak ahalbidetu eta bizkortu egiten dituztela salerosketa-mota desberdinak, non biktima nagusiak emakumeak baitiren, bereziki sexu-esplotazioaren eremuan.

Kolonbian 50 urte baino gehiagoko gerra bizi izan da eta, bake-prozesuan ere, emakumeak dira delitu horien biktima nagusiak:

ACNURen arabera, gatazka egoeretan bizi diren emakumeak zaugarriak dira gerra garaietako bereizkeria-jardueren aurrean, haien mendekotasuna areagotzen baitute (adibidez, elikadura-errazionamendu txikiagoak jasotzea edo errazionamendu-kartilarik edo bestelako agiririk ez izatea haien izenean), eta neurritz kanpo jasaten dute sexu-indarkeria. Sexu-esplotazioa helburu duen emakumeen eta nesken salerosketa, barne hartuta sexu-esklabotza, ezkontza behartua, prostituzioa eta haurdunaldi behartua, zibilen aurkako sexu-indarkeria orokorraren parte da, gatazka horietan zehar eta ondoren.

Era berean, Venezuelako migratzaileen kopurua hazi egin da Kolonbian, eta, migratzaileek dituzten zaugarritasun-baldintzak direla eta, delituzko jarduerak areagotu egin dira.

Kontuan hartu behar da Kolonbia bezalako herrialde batean sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren testuingurua sistema patriarkalen isla dela, horietan indarkeriak zaugarritasun-egoeran dauden pertsona guztiengana zabaltzen baitira.

Gainera, traba asko eta asko daude salerosketa-delituen aurkako benetako borroka eragozten dutenak. Besteak beste, Kolonbiako funtzionarioek delitu horri buruz duten sentsibilizazio edo kontzientziazio eskasa, biktimak identifikatzeko entrenamendu eta prozedurarik eza, tratulariak ikertzeko, detektatzeko eta judizializatzeko baliabide nahikoak ez izatea, migratzaileen legez kanpoko trafikoa identifikatzeko zailtasunak, delituari dagokionez biktimen erreparazio psikosoziala lortzeko mugak, kasuen judizializazioa, tratulariak ikertzeko, detektatzeko eta judizializatzeko sortutako erakundeetan dagoen ustelkeria eta delitua bereizteko zailtasunak.

Arlo horretan burutzen diren ekintza esanguratsuak modu desartikulatuan gertatzen direla ondorioztatu da, eta, hala, indarrak eta estrategiak bateratzeko aukera galdu da.

Fenomeno hori desagerrarazteko lanean jarraitu behar da, eta, hasteko, estrategikoki, gobernu-erakundeen eta gizarte zibilaren ekintzak artikulatu behar dira, ekintza horiei heltzea lehentasunezkoa izan dadin bai herrialdeko bai munduko politika publikoen agendan.

27 Kolonbiako Osasun eta Gizarte Babeserako Ministerioa (2018). *Sala situacional mujeres víctimas de violencias de género*.

28 UNOCD (2015).

6.5 Boliviako egoera eta testuingurua

Bolivian lege integral bat dute, sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren aurkako 263. legea. Hego Amerikan erregistratutako salerosketaren biktimen % 82 emakumeak dira, eta kasu horien helburu nagusia sexu-esplotazioa da (ONUDD, 2019). Kopuru horretatik, Bolivia ez dago salbuetsita, 2005. urteaz geroztik ezarritako salaketei buruzko datu orokorren arabera (urte horretan hasi ziren era horretako salaketak jartzen): 2019ra arte 4.960 kasu izan ziren.²⁹

Gizarteak sustatzen dituen jarrera matxistek eragina dute tratulariek biktima gehiago erakar ditzaten, eskaria badagoelako, “negozia bermatuta dagoelako”.

Estatuak gizarte-gaiei baliabide ekonomikoak esleitzeko ahaleginak egin arren, herrialde honetako aurrekontuak ez dira nahikoak indarkeria matxistaren aurkako lanketa arduratsu batek ekarriko lituzkeen kostuei aurre egiteko, salerosketa erauzteko tresnarik onena litzatekeen arren.

Bolivian sexu-esplotaziora bideratzen den salerosketan, bertako adingabeen egoera prekarioak aprobetxatu ohi dira; izan ere, maiz 15 eta 17 urte bitarteko nerabeak bihurtzen dira indarkeriek zeharkatutako familien sostengu ekonomiko, eta gazteek ez dute inolako lanbide-heziketarik; beraz, ez dute sexu-esplotaziotik urrun bizitzeko aukera errealik. Hala, emakumeen gorputzen esplotaziotik irabazi seguruak ateratzen dituzte tratulariek, mehatxuekin eta hertsapenekin hasten direnean, betiere biktimen zaugarritasun sozioafektibo muturrekoaren abantaila hartuz.

Sexu-esplotaziora bideratutako salerosketaren delituan, tratularia biktima errekrutatzen duen pertsona da, lekualdatzea antolatu eta sustatzen duena, biktima hartzen duena, askatasuna kentzen diona eta esplotatzen duena. Ez dago tratulari-profil orokorrik, hainbat gizarte-klasetako gizon edo emakumeak izan daitezke, emakume helduen esplotazioaren edo sexu-indarkeria komertzialaren bidez irabaziak lortzen dituztenak.³⁰ Erakunde zibil askok eta Boliviako Estatuak berak bi hamarkada baino gehiago daramate salerosketaren aurka borrokatzen, baina ez dute arrakasta handirik izan. Ez du esan nahi esku-hartzeak ez direla eraginkorrak izan, baizik eta nolabaiteko distortsioa dagoela indarkeria horren errealitatean; izan ere, prostituzioarekin nahasten da eta onartu egiten da, nerabea prostitutatzat eta haren esplotatzailea “bezerotzat” hartuta. Nerabeek bizi duten babes falta kezagarria da, eta, horren eragile nagusiak delitu horrekiko ezjakintasuna, axolagabekeria eta tolerantzia soziala dira.³¹

Beraz, biktima horiekin esku hartuz gero, onartu egin behar da sexu-indarkeria dela eta biktimek gizonen ardurapean migratzen dutela ekoizpen-jarduerak ezartzen diren eremuetara. Egurra moztea, garraio publikoa edo meatzaritza bezalako jarduerak gizonetzko langileak biltzen dituzte, baita sexu-merkataritzako jarduerak ere.

Delitu horren biktimei arretoa emateko, printzipio, balio eta harreman-modu batzuk ezarri behar dira pertsonen artean, gidari eta euskarri ukiezin gisa, hau da, euskarri afektibo, psikiko eta are espiritual gisa, biktimak errekuiperatzeko, bizitako egoera esperientzia gogor baina gainditzeko moduko gisa onartuz, eta berak egingarri ikusten duen bizitza-proiektu bat lantzea lortuz.³²

²⁹ *Observatorio de trata de personas*, Freddy Bustillos Arraya - CECASEM 2019

³⁰ *Diagnostico sobre la violencia sexual en Bolivia - Vuela libre, movimiento por una niñez libre de violencia sexual comercial*

³¹ *Diagnostico sobre la violencia sexual en Bolivia - Vuela libre, movimiento por una niñez libre de violencia sexual comercial*

³² La Paz hiriko Levántate Mujer Fundazioak ikuspegi hori darabil bere zerbitzuak eskaintzeko, sexu-indarkeria komertzialaren biktimen harrera-etxean.

Hori dela eta, premiazkoa da hurrekin eta nerabeekin maskulinitateak deseraikitze lan egitea, gizontasun-eredua ez dadin izan emakumearen gaineko botere-ariketa bat. Eredu hori indartu egiten da sexu-praktiketan gazterik hastearen bidez gizontasuna lortzeko mezuekin. Haur batek errazago onartzen ditu aldaketak pertsona heldu batek baino, eta, gizartea ohartzen ez den bitartean hori dela modu eraginkorrenetako bat emakumeen eta adingabeen aurkako sexu-indarkeria ororen aurka borrokatzeko, legeak ameskeria hutsa izango dira.

VII. BLOKEA: Sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren aurkako prebentzioan migrazio-ingurune segurueterako gomendioak

Ondorioak

Sexu-indarkeriarik eta salerosketarik gabeko bizitza bat eraikitze, beharrezkoa da nerabeen aurkako indarkeria-mota horiek "legitimatuz eta naturalizatzen" dituzten zuzeneko eta zeharkako egileen aldetik epe labur, ertain eta luzeko konpromisoak, ikuspuntuak eta proposamenak garatzea; hala, nerabeek beren eskubideak gauzatu eta indarkeriarik gabeko bizitza bat bizi dezaten, eta delitu horren biktimek eta arriskuan daudenek bizitza-proiektu harmoniatsuak, duinak eta bidezkoak eraikitze aukera izan dezaten.

Sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako salerosketa eta indarkeria gizateriaren aurkako delitutzat hartu behar da. Pertsonen osotasunaren, duintasunaren eta askatasunaren aurkako eraso da, edozein esparrutan gertatzen dela ere.

- Beharrezkoa da neskek eta emakumeek jasaten duten indarkeria- eta esplotazio-egoeraren berri ematea; batez ere etorkinek, errefuxiatuek eta/edo salerosketa-prozesuko edozein fasetan dauden emakumeek jasaten dute.
- Migrazioaren Mundu Itunari jarraipena egitea eta betetzea.
- Arriskuak arintzea ahalbidetuko duten alternatiba global eta integralak bilatzea, prebentzio, arreta, bilaketa, biktimen erreparazio eta kalte-ordainketarako estrategietan agertzen diren arrisku estrategikoei aurre egiteko eraginkortasun handiagoa izango duten neurriak ezarriz. Neurri horien bidez, erakundeak maila guztietan kudeatzeko jardunbideak indartu behar dira, prozesu jarraituetan planteatutako helburuak betetzeko ziurgabetasunak sortzen dituen arriskua eta inpaktua kontrolatzeko. Prozesu horiek esku-hartzeen kalitatea eta eraginkortasuna batu behar dituzte lantzen diren talde objektiboekin, eta gizateriaren aurkako delituen aurkako borrokan epe luzera **iraunkortasun** handiagoa bermatzeko aukerari aurre egin behar diote.

8. GIH betetzeko ahaleginak areagotzea, helburu hauek lortzeko:

- Lan-eskubideak babestea eta lan-ingurune segurua eta arriskurik gabea sustatzea langile migratzaile guztientzat, batez ere emakume migratzaileentzat eta enplegu prekarioak dituzten pertsonentzat.
- Lan-migrazioari dagokionez, lan duina sustatzea.
- Eskulan behartuaren trafikoari eta gainerako lan-esplotazio modu guztiei aurre egitea.
- Haurren errekrutatzeari aurre egitea.

Eskubideetan oinarritutako ikuspegia hartzea, lan-arauak barne hartzen dituzten nazioarteko eskubide-esparru batzuk sustatuko dituen, langile migratzaileen egoera hobetzeko, eta, horrela, erronka komunei aurre egiteko. Erronka horiek lotuta daude lan-baldintzekin, soldatekin, gizarte-babesarekin, lan-segurtasunarekin, osasun-laguntza eta sexu- eta ugalketa-osasuna eskuratzearekin eta migrazio-estatusarekin.

Pertsonen migrazio eta mugikortasun ordenatua, segurua, erregularra eta arduratsua erraztea, besteak beste, planifikatutako eta ongi kudeatutako migrazio-politikak aplikatuz.

Beharrezkoa da migrazio-erregimenak edukitzea mundu-, eskualde- eta estatu-mailan, eta migrazioa guztion mesederako kudeatzeko marko politiko integralak izatea.

Kontratazio-praktika etikoak indartzeak eta kontratazio batzordeak ezabatzen laguntzeak pertsonen salerosketari, zorren ondoriozko lan behartuari eta derrigorrezko lanari aurre egiten lagunduko luke.

Ezinbestekoa eta premiazkoa da berdintasunean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza, egungo egoerak saihesteko.

Tipo penaletan legeak egin behar dira, lan-esplotaziora bideratutako salerosketa eta immigrazio irregularra bereizteko.

Kezkagarria da zenbait marko juridiko, hala nola Istanbulgo Hitzarmena eta Emakumeen aurkako diskriminazio modu guztiak ezabatzeari buruzko Konbentzioa, ez erabiltzea salerosketaren aurka eta/edo biktimen babeserako, soilik ikuspegi penalaren arabera jokatzeko baita.

Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, aipatzekoa da Ikuskizun Publikoei eta Jolas Jardueri buruzko Lege berria, emakumeen giza eskubideak urratzen dituela esan baitaiteke. Gainera, lege horrek prostituzioa "baimendu eta arautu" egiten du jolas-jardueren arloko ikuskizun gisa, eta arautu egiten ditu bezeroentzako osasun- eta higiene-baldintzak.

Sexu- eta lan-esplotaziora bideratutako salerosketaren biktimen jatorrizko herrialdeetan, tokiko GKE eta elkarteek hau eskatzen dute:

- ✓ Gizarte zibileko erakundeekin koordinazio handiagoa
- ✓ Biktimentzako zerbitzu espezializatuak, biktimak babesteko finantzaketa areagotzeko (salerosketaren aurkako funtsa)
- ✓ Biktimak zerbitzu egokietara bideratzeko prozedura operatiboak ezartzea
- ✓ Gobernu funtzionarioentzako trebakuntza: gizarte-langileak, lan-ikuskatzaileak eta ordena publikoko agenteak
- ✓ Prozedura ofizialak ezartzea herritar zaurgarrien artean salerosketaren biktimak modu proaktiboan identifikatzeko
- ✓ Gobernu-erakundeen arteko koordinazioa eta salerosketari buruzko estatistiken erregistroa hobetzea eta gardentasuna areagotzea, gobernu-erakundeek kanpo-eragileekin elkarlanean egindako salerosketaren aurkako ahaleginen berri ematean.
- ✓ Legea aplikatzeko ahaleginak eta biktimak babesteko ahaleginak indartzea Karibeko eskualde autonomoetan.
- ✓ Pertsonen salerosketa-modu guztiak hartzen dituzten kasuak ikertu eta prozesatzea.
- ✓ Adingabeen esplotazioa eragiten duen turismo sexuarekin diharduten tratulari eta turistak kondenatu eta zigortzea.
- ✓ Salerosketaren aurkako 2014ko legea aldatzea, haren pertsonen salerosketaren definizioa nazioarteko legeriarekin bat etor dadin

Bibliografia

1. Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren Memoria 2019
https://www.fiscal.es/memoriak/memoria2019/FISCALIA_SITE/index.html
2. *GUÍA SINDICAL: TRATA DE SERES HUMANOS CON FINES DE EXPLOTACION LABORAL* 2014 -UGT
3. Lanaren Nazioarteko Erakundea (LANE). Gizakien salerosketa eta Derrigorrezko Lana, esplotazio modu gisa. Legeriari eta haren aplikazioari buruzko gida.
http://www.unodc.org/documents/treaties/organized_crime/CTOC_COP_WG_4_2010_2_S.pdf
4. *La Trata de Personas con Fines de Explotación Laboral. Un estudio de aproximación a la realidad en España*. Accem. ISBN-13: 978-84-691-5557-8 Lege-gordailua: M-41503-2008 INDUSTRIAS GRÁFICAS AFANÍASen inprimatua.
5. AEBetako Estatu Departamentuaren Pertsonen Salerosketari buruzko Urteko Txostena. 2016ko ekaina
<https://ni.usembassy.gov/es/our-relationship-es/official-reports-es/informe-anual-del-departamentu-de-estado-sobre-la-trata-de-personas/>
6. PERTSONEN SALEROSKETAREN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA Migrazioetarako Nazioarteko Erakundea (MNE) Nikaragua-Managua, 2019ko otsaila
<https://www.refworld.org/es/pdfid/5cdc64b54.pdf>
7. Bortxazko lanari buruzko Hitzarmenari (1930) buruzko 2014ko protokoloa berresteko agiria, Genevan egina, 2010eko ekainaren 11n.